

ARRASATE PRESS

1993ko otsaila 26

182. zenb.

Hiru mozio
Plenoan

Arrasaten
ikasle



Karriona (Garagartzako Izti kalean)

Gaur Beñiño Zuazubiskar Eriz bertan jaixue eta Emili Etxabe Aranburuzabala Maringo Arane basarrikue die bertan bizi direnak, euron alabie dan Izaskunekin, Angel Murua suinekin eta Mainer, Olaia eta Alaitz ilobekin.

Etxie, Beniñon familiek gizaldi honen hasieran erosi eben. Oin 56 urte ezkondu zien eurok, gerra aurretik. Gerran latzak pasau zittuen. Hemen go basarritar askori moduen Beniñori be gudarixen konboietan parte hartzie tokau jakon etxeko idiekkin. Santanderrerraino ailegau ei zan eta handik barriro bueltau. Bi urte kartzelarik kartzela ibilite gero etxera etorri zan.

9 seme-alaba izen dittue: Joxe, Rafa, Juan Joxe, Ra-



mon, Inaxio, Izaskun, Balentin, Balbino eta Jexus Mari. Honeittetik 6 bizi die.

Beniño eta Emilin bizibidie basarrixen izen da beti. Beniño soloko lanetan eta artzantzian (etxeko gaztagile bere ama Frantziska zan) eta

Emili herriko plazan basarriko jenerue saltzen. Tokau jakon Durangora kipula-landara saltzen fatie.

Beniño silla ipurdi konpontzaile habile da. Ofiziuie ixen berez ikasittekue ei dau, Mazpelan bizi zan erdel-

dun baten instrukziñuek jarraituaz.


Oin 25 bat urte diela Garagartzako laminien ipuine dala ta pelikula bat ein zan. Pelikula honetako eszena batzuk Korrioneko etxe inguruen filmau zien.

**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



CF
CARFRA

Vanesa

Berango
ALTZARIAK

ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala

Gatzagan,
erdi erdian...
**ZUHAITZ
JATETXEA**



**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46


VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Parlamentarien soldata

rain dela gutxi Aretxabaletako Udaletxeko gobernu kideen arteko desadostasun baten berri izan genuen eta idazki honek aipatutakoarekin zerkusi zuzena ez duen arren, ildo antzeko-tik doa.

Kontu zaharra da Eusko Legebiltzarrean eta estatuko foroetan HBko ordezkariakiko auzia: Bertara joaten ez direnez, ez zaie dagokien dirua ordaintzen. Uste dut erabaki horretan politika dagoela beste ezer baino gehiago, baina ez dut horretan sartu nahi, beste zerbait da kezkatzen nauena eta mahai gainean jarri nahi dudana.

Langile naizen aldetik, argi daukat noizbait inolako justifikaziorik gabe lanean "piper" egiten badut, poltsikoan ondo nabarituko dudala eta alde horretatik begiratura soil soilik, ados nago politikoekin erabakitakoarekin. Arrazonamendu berberaz jarraituz, badago ulertzen eta onartzen ez dudana zerbait: maiz agertzen dira telebistan Eusko Legebiltzarreko eta estatuko Kongresuko eta Senatuko irudiak eta benetan lotsagarriak iruditzen zaizkit: eserleku mordo bat, edo ia gehienak hutsik. Zer gertatzen da orduan?

Herriarekiko orokorrean, eta hautesleekiko partikularean, oso errespetu gutxi erakusten dutela derizot: hain erantzukizun handia eskuartearen izanik, guztion oraina, geroa eta diruaz jokatzeko baitute. Ez dut ulertzen askotan erakusten duten jokabi-

dea.

Beste betebehar batzuk badituzte, erabaki dezatela alde batera edo bestera, ez baitute uste bi lan batera ondo bete daitezkeenik kasu honetan; eta, noski, soldata horren arabera erabaki. Asko eta asko lehen lana eskuartzeko dauden bitartean, beste batzuk...

Gero, gero eta jende gutxiagok ematen dugula botua. Horretarako izan ezik, hartzen gaituzte, bada, kontutan? Tristeza galdera hau egin beharra, ezta?

Baina momentuko egoera eta orokorrean gizarte osoak erakusten duen egonezina kontutan hartuz gero, zer pentsa dezaket?

"En fin", berriro ere hor ditugu hauteskundeak ate joka, eta zer? Bada, Joserra Garziaren letraz Tapia eta Leturiaren abestiak dioen bezala: "izan praktikoa, demokratikoa, bota ezazu betikoa".

IHINTZ



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.- 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publikatzailea:** Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketaria:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arriburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertsu eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Loge-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofiat).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo

GORKA
ILEAPAINDEGIA
 Ferrerías, 35
 Tfnoa: 76 08 14 ARRASATE

Memesa
79 42 22



ITURRIOTZ
taberna
Girorik
jatorrena!
 Tfnoa: 79 16 04

I
R
TABERNA
T
I
 Ferrerías kalea
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 56 11

••••

Saskibaloia Zuzendaritzaren berritzea

Jose Mari Balzategik eta egungo Zuzendaritza Batzordeak orain egun batzuk entrenatzaileei eta Gurasoen Batzordeari, denboraldia bukatutakoan ez genuela jarraituko adierazi ondoren eta denbora pasatuta taldea zuzentzeko proposamenik hartu ez denez, proposamen bera luzatu nahi diegu zaletu guztiei. Beraz, Arrasate Saskibaloia taldeko Zuzendaritza berria osatu nahi duten guztiek, beraien kandidaturaren berri eman dezakete Musakolako kiroldegian, lehendakari-gaia eta bere lan-taldea osatuko dutenen izenekin, martxoaren 20a baino lehen.

11 talde federatuk eta ikastetxe mailako 8 taldek osatzen dute Arrasate Saskibaloia. Denboraldi honetan, ekonomia aldetik batez ere, egoera zailak bizi behar izan dira. Hasieran sponsorrik ez lortzea kolpe handia izan zen, baina gurasoen hileroko 2.500 PTA kuotak neurri batean geldiarazi zuen eta denboraldia zenbaki negatibo barik bukatuko da. Hau da: Zuzendaritza berriak ez du heredentziaz utzitako arazo ekonomikorik konpondu beharrik izango. Gainera, negoziaketak ez dira sekula amaitu, eta orain ere, denboraldia amaitu arte sponsor baten bila ari gara, datorren denboraldira begira jarrai-

tzeko konpromezuaz.

Dena dela, Zuzendaritza berriaren eginbehar nagusia, ondorengo urteetarako kirol-planifikazioa izango da: 19 talde aurrera eraman ahal dituen edo ez, bigarren mailako gizonezko eta emakumezko taldeen etorkizuna planteatu... kontuan hartuta taldea AUKEAko partaide dela, Arrasaten kirolaren planifikazioa egiteko ezinbesteko erreferentzia puntua.

Jose Mari Balzategi eta bere Zuzendaritzako kideok prest gaude erreflexio guzti horiek elkarrekin egin eta errelebo egunera arte, edozein gauzetan laguntzeko.

ARRASATE SASKIBALOI

••••

Ibilaldia Epelera

Ingurugiroaren degradazioari dagokionez, Deba Garaian ezaguna da datozen urteak zailak izango direla. Guztiontzat, eta batez ere ekologiaz kezkatzen garenontzat, tentsio egunak iragartzen dira.

Maltzaga-Urbina autopista, Durango-Beasain errepidea eta Abiadura Handiko Trenaren obrek gure bailaran izango dute elkargunea. Egoera horrek arduratu egiten gaitu eta era berean adi jartzera behartu, geldiaraztea lortuko ez bagenu gure ingurunean



konponbide gabeko ondorioak izango lituzkete eta.

Maltzaga-Urbina proiektua burutu ahal izateko, Durango-Beasain errepidearen obrak atzeratu egin dituzte, baina bere zati batenak -Epeleri dagokienak- dagoeneko hasita daude.

Mendia Bizirik eta Eki talde ekologistek otsailaren 27rako Epeleraino ibilaldia antolatu dugu, obrak bukatzen direnean ingurune natural honetan gertatuko diren aldaketak ikusteko.

Aipatutako ibilaldiaren helburua, goiza gustora pasatzeaz aparte, obren eragina ezagutzea da eta nolabait hurrengo erasoerik aurre egiteko sentsibilizatu, bailadako paisaia hormigoia eta azal gabeko lurrezkoa bihurtuko luketen erasoak.

Natura maite eta hankei arindu bat eman nahi badiezu, zatoz gurekin Epelera. Goizeko hamarretan bilduko gara Portaloian. Botarik ez ahaztu, eta gizentzeko beldurrik ez baduzu bokata ere ez. Gainera Epeleko erre-kastoa ura erateko aukera izango duzu, obrak bukatzen direnean akaso ezin izango dugu egin eta.

Mendia Bizirik eta Deba Garaiko EKI

FANCY
 Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Basabe jatetxea
 Menu eta afariak
 Boda eta banketeak
 Industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

Zer diozu eguraldi aldaketei buruz?



Lurdes Mugika
Etxekoandrea (52 urte)

Lehen uste nuen kutsadura zela eguraldi aldaketen arrazoia edo erruduna, baina orain uste dut prozesu natural bat dela eta beti egongo dela noizean behin aurtengoa bezalako urte bat.



Dabid Florencio
Eskola Politeknikoko ikaslea (17 urte)

Niretzat ez da hainbeste aldatu. Egia esan, aurten oso euri gutxi egin du eta behar den gauza dela uste dut. Alde horretatik, txarrera aldatu da, euria beharrezkoa da.



Rosa Maria Zabalo
Ikasle eta langilea (32 urte)

Aldatu, horixe aldatu dela. Badakigu arrazoia kutsadura dela, noizean behin niri ere gauza arraro batzuk, garauak eta irteten zaizkit aurpegian, eguraldiarengatik seguruenik.



Raimundo Uribarren
Jubilatua (70 urte)

Beno, lehen askoz ere euri gehiago egiten zuen, eta baita edurra ere. Ni akordatzen naiz beti Santamasetan zuri zuri egoten zela herria. Aldaketa hau ona be bada; modu hone-tan negua motzagoa izaten da.



Felipe Vitoria
Jubilatua (72 urte)

Aldatu asko egin da. Ni gaztea nintzela edur eta euri gehiago egiten zuen. Ez dakit, jendeak esaten duenez lehen eguraldi hobea egiten zuen, eta baserritarrentzako, batez ere, seguru baietz.



Jaione Larrea
Ikaslea (23 urte)

Niretzat batez ere kutsadurak aldatu du eguraldia. Temperatura aldetik ere nahiko arraroak izan dira aurten, oso bajuak edo oso altuak. Txarrera aldatu dela uste dut.



Jose Luis Bengoetxea
Coprecikoko langilea (33 urte)

Asko aldatu da. Baina nire ustez onera, nahiz eta euri gutxiago egin, eguraldi hobea egiten du.



Kristina Gonzalez
Etxekoandrea (59 urte)

Aldatu, asko egin da. Ni gaztea nintzela edur eta euri gehiago egiten zuen eta, ez dakit, nire ustez gauzak txarrera doaz. Gauzak naturalak askoz ere hobeto izaten dira eta aurtengoa ez da normala.



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
Iarruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

TXITXINPE

BEREZITASUNAK

Kafea, ardoak,
urdaitegia, fruitu
lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
Tfnoa: 79 67 76
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igoalatorria 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 71 44 52
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udalizaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitate (iberduero) 79 05 81
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 26
 Egunez: Irizar, Erguin.
 Gauez: Irizar, Erguin.
Larunbata 27
 Egunez: Amezua, Santa Marina.
 Gauez: Amezua, Santa Marina.
Igandea 28
 Egunez: Ruiz, Maala.
 Gauez: Ruiz, Maala.
Astelehena 1
 Egunez: Morales, San Andres.
 Gauez: Puy, Barrenkale.
Astearte 2
 Egunez: Azkoaga, Ferrerías.
 Gauez: Guallar, San Antonio.
Asteazkena 3
 Egunez: Español, Iturriotz.
 Gauez: Estella, Matxiategi.
Osteguna 4
 Egunez: Corcuera, Musakola.
 Gauez: Mozos, Pedro Deunaren.

26 OSTIRALA

ZINEA
 "Resplandor en la oscuridad"
 (7,10)

BERTSO SAIOA
 Mañukorta, Arantzazu Loidi,
 Imanol Lazkano eta Jokin
 Sorozabalekin bertso saioa.
 Gai jartzaile: Juanito Saizar.
 Gaueko 10.30etan. San
 Viator Aretuan. Sarrera: 500
 PTA.



BERTSO SAIOA SAN VIATORREN

Gaur gaueko 10.30etan San Viatoroko Aretu Nagusian, bertso saioa izango da BBBko bigarren mailako ikasleek antolatuta, ikasbidaierako dirua ateratzeko. Partaideak: Mañukorta, Arantzazu Loidi, Imanol Lazkano eta Jokin Sorozabal. Gai jartzaile: Juanito Saizar. Sarrera: 500 PTA.

ANDALUZIA EGUNAREN IV. OSPAKIZUNAK

Bihar larunbata, Andaluzia eguna ospatuko da. Goizeko 11etan Arrasateko Kiroldegian Sebillana dantzen lehiaketa eta "AL Andalus" Koro Rozieroaren ekitaldia. 1etan "Sueños de Andalucía" eta "Alegría de la Sierra" taldeen emanaldia, 6.30etan Barakaldoko "Alarde de Castilla-Leon" taldearen ekitaldia. 8ak aldera, "El que lleva la entiendo" Txirigota taldearen emanaldia eta 9.30etan afaria bazkide eta lagunentzat eta gaueko 12etan Andaluziako Himnoarekin bukatuko dira ekintzak. Goizalderarte, Dantzaldia Nervion Orkestarekin.

27 LARUNBATA

ZINEA
 "Belle Epoque" (5,7.30,10)

EPELERA IBILALDIA
 Epelera ibilaldia. Irteera: goizeko 10etan. Portaloitik. Mendia Bizirik eta EKI talde ekologistek antolatuta.

AEROBIKeko KLASEAK
 Aerobikeko klaseetarako izena emateko azken eguna. Aretxabaletako Kiroldegian. Klaseen hasiera: martxoaren 1a. Irakaslea: Maria Jesus Andueza.

LEINTZ BERTSOTAN
 Bailarako bertsolari gazte eta helduen afalosteko saioa. Gaueko 8.30etan. Apotzagako Auzo Etxean.

HITZALDIA
 "Afrika, oraina eta geroa" hitzaldia. Emalea: Tsimpanga Matala Kabangu, Zaireko Lubumbashi unibertsitateko nazioarteko harremanetarako irakaslea. Goizeko 11.30etan. Bergarako UNE-Den.

ANDALUZIA EGUNA
 Andaluzia egunaren IV. ospakizuna. Arrasateko Kiroldegian. Goizeko 11etatik aurrera. Sarrera Librea.

ROCK KONTZERTUA
 "La Grima" taldearen rock kontzertua. Gaueko 9etan. Arrasateko Gaztetxean. Prezioa: 300 PTA.

28 IGANDEA

ZINEA
 "Belle Epoque" (5,7.30,10)

MENDI IRTEERA
 Jarindo-San Adrian-Aretxabaleta ibilaldia. Irteera: goizeko 8.45etan. Aretxabaletako Partenoitik.

ROCK KONTZERTUA
 "Uk Subs" eta "Iskanbila" taldeen kontzertua. Arratsaldeko 7etan. Arrasateko Gaztetxean. Prezioa: 500 PTA.



U.K. SUBS TALDEA GAZTETXEAN

Larunbata eta igandean bi rock kontzertu izango dira Arrasateko Gaztetxean. Bihar 9etatik aurrera Burgosko "La Grima" taldearen emanaldia izango da eta 300 PTAko sarrera ordaindu beharko da. Igandean, berriz, arratsaldeko 7etan "Uk Subs" eta "Iskanbila" taldeak izango dira. Aipatzekoa da "Uk Subs" talde ingelesa, punk mugimenduaren talde aitzindarietarikoa bat izan zela; eta Euskal Herrian beste hiru aldiz bakarrik egon direla. "Iskanbila", talde arrasatearra da, eta Gaztetxean joko duten lehen aldia izango da. Sarrera 500 PTAkoa izango da.

1 ASTELEHENA**ZINEA**

"Belle Epoque" (7,9.30)

"GEU EMAKUMEOK" ALDIZ-KARIARENAURKEZPENA

"Geu Emakumeok" feministen aldizkariaren aurkezpena. Arrasateko Jai Zale Elkartean. Arratsaldeko 7.30etan. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

BASOTXON ZAINDARIAREN OSPAKIZUNA

Aretxabaletako jubilatuen elkar-teko, Basotxoko, zaindaria-ren ospakizuna. Eguerdiko 1etan meza Ama agustindarren konbentuan. Bazkaria: 2etan Taberna Berrin. Prezioa: 2.000 PTA.

**BELLE EPOQUE FILMEA**

**Nahiz eta hasiera nahiko serioa eduki, filme honek komedia-
ren irizpideak jarraitzen ditu nagusiki, amodiozko ikasketa bati buruzko komedia, hain zuzen. Askatasuna, itxaropena eta sexua naturaltasunez elkarlotzen ditu Fernando Trueba zuzendaria. Hala ere, lasaitasuna eta tristurarentzat ere toki txiki bat gordetzen du, Mirian Diaz Aroca, Penelope Cruz eta Ariadna Gil protagonistetan isladatuko dena.**

2 ASTEARTEA**ZINEA**

Ikuslearen eguna.
"Belle Epoque" (7,9.30)

KANTU AFARIRAKO TXARTELAK

Beinkeko kantu afarirako txartelak erosteko azken eguna. Beinken eta Gurea tabernan daude salgai. Afaria: martxoaren 5ean, Uratzalde elkartean, arratsaldeko 8.30etan.

MATRIKULAZIO EPEAK ZABALIK

Arrasateko San Andres, Musakola eta Erguineko eskoletan 93-94 ikasturterako aurrematrikulazioa egiteko martxoaren 1tik 15era egongo da zabalik, izena emateko telefono hauetara dei egin dezakezue: San Andreseko 79 00 44 telefonora, Musakolako 79 04 49ra eta Erguineko 79 77 74ra. Bestalde, Cambridge-ko First Certificate, Advanced eta Proficiency azterketa egiteko matrikula epea ere zabalik dago. Martxoaren 1etik datorren 9a arte egongo da zabalik eta izenak emateko telefono honetara dei dezakezue: 79 65 54ra.

BEINKEK KANTU AFARI

Beinkek datorren martxoaren 5erako antolatu duen Kantu Afarirako txartelak salgai daude Aretxabaletako Beinke eta Gurea tabernan. Afaria ostiralean arratsaldeko 8.30etan hasiko da Uratzalde elkartean, eta soinu-jole bat ere bertan izango da. Interesatuok martxoaren 2a baino lehen eros dezakezue txartela. Ekitaldi honen helburu nagusia herrian dauden kantuzaleak bildu eta afal ondorengo giro ederrean betiko kantak gogora ekartzea da.

3 ASTEAZKENA**4 OSTEGUNA****HITZALDIA**

"Besteak zaintzea: eginbeharra ala aukera?" hitzaldia. Hizlariak: Rosa Lasuncion eta Bego Mendia. Monterronen. Arratsaldeko 7etan. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

HARATUZTEETAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Haratuzteetako argazki lehiaketako sari banaketa. Monterronen. Arratsaldeko 7etan. Erakusketaren hasiera, martxoaren 14a arte.

**MARTXOAREN 8ko EKINTZAK**

Datorren martxoaren 8an emakumearen eguna ospatzen dela eta, Arrasateko Emakumeen Asanblada taldeak hainbat ekintza antolatu ditu. Astelehenean "Geu Emakumeok" aldizkari feministaren aurkezpena egingo da Jai Zale Elkartean, arratsaldeko 7.30etan. Martxoaren 4ean, ostegunean, "Besteak zaintzea: eginbeharra ala aukera" hitzaldia egongo da Monterronen, arratsaldeko 7etan, Rosa Lasuncion eta Bego Mendiaren eskutik. Ostiralean, berriz, Andreak antzerki taldearen "Las tres gracias de la casa de en frente" obra antzeztuko da Oñatiko Santana zinean, gaueko 10.30etan. Eta martxoaren 8an, arratsaldeko 7.30etan Egizan eta Emakumeen Asanbladak antolatutako manifestaldia burutuko da Sebero Altuben. Ondoren, Jai Zale Elkartean lunch bat emakume guztientzat.

HARATUZTEETAKO ERAKUSKETA

Haratuzteetako argazkiak otsailaren 24 eta 25ean entregatu ziren eta datorren astean irabazleen izenak ezagutuko dira. Martxoaren 4ean, ostegunean sari banaketa

egin da. Arratsaldeko 7etan Monterronen izango da eta egun berean aurkeztutako argazki guztiekin erakusketa bat zabalduko da, martxoaren 14ra bitartean.

“Jakina denez, euskarak, normalizatu bada, bizitzaren arlo guztietan presentzia eta sustapena izan behar ditu eta horietako bat, garrantzitsua bezain funtsezkoa, lan-mundua da. Poliki baina sendo langileak euskaldundu beharko dira, etorkizunean euskaraz lan egiteko aukera izan dadin, eta horretarako nafar sindikatuek eginiko proposamena lehen urratsa izan daiteke, kontutan izanik mila milioitako aurrekontu batean 47 milioi huskeria dela”.

Bego Zubia

egin

“Arrasaten eta beste udalerrri euskaldun batzuetan eguneroko bizitza euskalduntzeko pauso batzuk egin dituzte jadanik. Hortik abiatu beharra dago, baina gaurtik hasita, eta guztiok; bestela ez dugu biharamunik ikusiko.”

Xabier Kintana 93-2-16

Egunkaria

“Euskadin orain hiru alternatiboa daude: EAJ, PSOE eta HB. Nire ustez EEren proiektuak ez du porrot egin, orain EEEn sartzearekin Euskadik euskal kultura sozialista bultzatu behar du. Hemen izan ditzakegu arazoak PSOEekin baina beti ere uste dut proiektu berri hau Euskal sozialismotzat hartu daitekeela. Sozialismo honek euskal gizartearen eta kulturaren egituraketaren aldeko apostua egin du, honen bitartez Autonomia Estatuaren moldaketa bilatzen du baina beti ere Konstituzioa errespetatuz”.

Alvaro Esparza 93-2-19

BERRIGARA

Zertan da orain Roneoko arazoa?


Asteartean zuzendaritza eta langile komitea bildu ginen. Bileran, zuzendaritza berriaren aurkezpena egin zen eta nolabait, Donostian esan zigutena errepikatu zuten, beraien ustez enpresak baduela etorkizunik, baina orain arteko gestioa ez dela onegia izan, orain arte enpresa Madrildik zuzendu dela, boterea Madrilan egon dela eta orain zuzendaritza hona ekarriko dela, Arrasatera.

Era berean, zuzendaritzak enpresaren egoeraz hitz egin zuen, larria dela baina aurrera irten daitekeela esateko. Orain errekurtsioen hedapena egitekotan dira, horrela banketxe eta hornitzaileekin dagoen zorra bernegoziatzeko aukera izango delakoan, hemen egin diren inbertsioak kredituen bidez egin dira eta.

Martxoaren erdialderako plan estrategikoa aurkeztuko du enpresak eta orduan ikusiko da soberan dagoen jendea, langileoi nola ordaindu behar diguten, zorrak nola ordainduko diren....

Langilegoaren aldetik plan hori ezagutu arte itzarotea besterik ez dugu. Gertatutakoa baloratzerakoan, esan behar da eraman den gestio txarrak eragina izan duela langilegoan, soldatak kobratu barik egoteaz aparte, plan estrategikoak erregulazio espedientea edo langilegoaren errekorrea ekar baitezake.

Egun honetako mobilizazioei dagokienez, balorazio baikorra egin behar dugu, azken finean zuzendaritzak gurekin hitzegin eta etorkizunera begira plan estrategiko bat lantzea lortu baita, eta gainera, entzerronan eta martxan langile guztiak izan ginen.



Txema Garro

Roneoko Enpresa Komitean LABeko partaidea



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

Gaztetxeko kontzertuan jende gutxi

Pasa den larunbatean *Martxoak 31* eta *Izurrai!* taldeek Gaztetxean eskaini zuten kontzertua ikustera ez zen jende asko agertu, 50-60 pertsona. Kontzertua, berez, ez zer txarra izan, baina giro hotza medio, ezta jantziegia ere.

Corazón de Encina elkartearen asanblada

Corazón de Encina elkartearen urteko asanblada orokorra burutu zen Monterronen pasa den igandean. Asanblada goizeko 10.30etan hasi zen eta bazkide ugari agertu zen Monterrongo hitzaldi-aretoa. Iazko balantze baikorra egin zuten Corazón de Encina elkarteak kideek, aipatuz lokal eskaxa dutela baina asko mugitu zirela. Aurtengo urteari begira, Corazón de Encina-koentzat helburu garrantzitsuena lokal berria bukatu eta inauguratzea da, Escatu lantegia zegoen tokian egiten ari direna. Extremadurako taldearen ordezkari-rik ziotenez, posible izango da lokal berriaren inaugurapena uztailaren 30ean izatea.

Istiluak eta atxiloketa asteburuan

Jose Manuel Pagoaga "Peixoto"ren atxiloketaz protesta egiteko manifestaldiaren ondoren, pasa den ostiralean Aitor Etxabe



Play-back jaialdiak arrakasta handia

Musakolako kiroldegia, laugarren play-back jaialdia ikusteko, jendez gainezka ageri zen pasa den larunbat gauean. Jaialdia 10.30etan hasi zen eta bi orduko luzapena izan zuen, guztira hamazortzi saio desberdin. Kiroldegia bete zuten 1.500 pertsonak gogoz txalotu zuten sasi-aktoreen lana, aurreko urteetakoaren bezain barregarria, baina muntaia aldetik askoz ere hobea. Jaialdian parte hartu zutenen lana kontuan hartuta, ez litzateke zuzena izango batzuk aipatu eta beste batzuk ez; beraz, gogorapen-gisa, artista guztien artean saioa amaitzerakoan egin zuten "Nafarroa Oinez"eko kantuaren parodia.

gazte arrasatearra atxilotu zuten Ertzaintzak; larunbatean libre utzi zuten. Manifestaldia arratsaldeko 7.30etan hasi zen eta istiluak arratsaldeko 8ak aldean hasi ziren, autobusa gurutzatu errepidean eta trafikoa eten behar izan zen; une berean, Central-Hispanoamericano banketxean sute txiki bat eragin zuten. Ertzaintzak Aitor Etxabe atxilotu zuten, ustez sutearekin zerikusia zuelakoan. Beranduago, 11.30etan, Aitor Etxaberen atxiloketa salatzeke beste manifestaldi bat egin zen. Aitor Etxabek gaua Ertzain-

degian pasa zuten, larunbatean epailearekin egon ondoren libre utzi zuten, baina diligentsziek aurrera egingo dute.

Musika eta antzerkia Aita Mennin

Taun-Taun antzerki taldearen emanaldiak larunbat arratsaldean eta Arrasateko Musikaleko ikasleen kontzertuak astelehen arratsaldean, osatu zuten Aita Menni Ospitaleko haratuzteetako kultur-ekintzen eskaintza pasa den astean. Taun-Taun taldearen ekitaldia 200en bat gaixok

ikusituzten eta auzoko mutiko eta neskatxa pilo bat agertu zen bertara; Arrasate Musikal-eko ikasleen ekitaldia, berriz, xumeagoa izan zen eta 60ren bat gaixoren presentzia izan zuen. Azkenik, astearte arratsaldean Haratuzteetako Dantza egin zen Ospitalean, festa ederra moxorrotutako 300 gaixo eta 25 langileen-tzat.

Arrasatear asko Mondra animatzera

Jokalariaren autobusaren erdia eta beste bat osorik bete zuten Mondra zaleek joan den igandean Irunera joan eta Real Union - Mondra partidua ikusteko. Autobusez joandakoez gain, kotxeetan joandakoak ere baziren Irunen. Guztira 150 arrasatear Gal estadioan, baina alperrik, Mondrak 2 eta 1 galdu zuten eta.

JAIOZAK


- Danel Zubizarreta Arregi. Otsailaren 14an.
- Adrian Orrillo Badillo, 18an.

EZKONTZAK

- Victor Gonzalez Atxa & Amaia Perez de Albeniz. Otsailaren 6an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Eusebia Amparo Prieto Diez. Otsailaren 17an. 83 urte.
- Miguel Madariaga Alberdi. 18an. 68 urte.
- Justo Arregi Aranzeta. 18an. 79 urte.
- Dorotea Galindo Lazaro. 20an. 91 urte.
- Pablo Alonso Santos. 22an. 83 urte.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



KARMELE ITURBE *

Ikastohiturak

Zein izan daiteke ikasteko modurik egokiena? Nola atera errentagarritasuna edota nola aprobetxatu ahalik eta egokien ikastorduetan?

Hauek ditugu, bai irakasleok, bai gurasook baita ikasleok ere nahiko kezkatzen gaituzten arazoak.

Ikasleek ez dute, askotan, ikasteko metodurik eta euren lan pertsonalean harturiko txarrak soma daitezke: toki ez aproposak, planifikaziorik eza, azterketa bezperatan ikastea....

Ohitura kaxkar hauek ikasturteetan zehar finkatu egiten dira, aldatzeko gero eta zailagoak bihurtuz eta, sarritan, guraso eta seme-alaben arteko demandak, haserreak sortuz.


Arazo hauek prebenitzeko eta ikasleari modu egoki eta probetxagarri baten ikasten laguntzeko, bi aspektu hauek kontutan hartzeari ezinbestekoa deritzogu:

1- Irakurketa-Idazketa lortu ondoren, oinarritzko ikast-ohiturak lantzen hastea, gerorako utzi gabe.

2- Prozesu honetan esku hartzen duten hezkuntz-eragile guztiak inplikatzeari gurasoak, irakasleak.

Hau dela eta, S.F.X. Ikastolan, 8-9-10 urteko ikasleentzat komiki erako kuadernotxo bat burutu dugu.

Koadernotxo hau geletan lantzeko ezezik, gurasoei laguntzeko ere bada. Bertan, ikasteko orduan beharrezkoa diren planifikazioa eta bal-



“Nola atera errentagarritasuna edota nola aprobetxatu ahalik eta egokien ikastorduetan?”

dintza fisiko-ambientalak azaltzen dira:

1- Ikasteko toki finko eta pertsonala egokitu, non ma-haia, aulkia eta argia egongo diren.

2- Kontzentrazioa eragotziko duen edozein zarata kendu (Telebista, musika...).

3- Nork bere ordutegi egokia eratu: ez oso berandu, ezta Ikastolatik irtenaz bat ere. Ikasteko denbora malgua izango da ikaslearen arabera: 30 minututik ordubetera bitartean.

4- Egiteko dauden lanen ordena planifikatu, zailenatik hasita.

5- Errendimendu eskolar eta atentzio hobeak lortzeko, elikadura eta atsedena zaintzea ezinbestekoa da.

6- Telebistako programak neurtu, bai kantitatez bai kalitatez.

11 urtetik aurrera, behin oinarritzko ohitura hauek finkatuz gero, hurrengo pausua ikas-teknikak ikastea eta erabiltzea litzateke.

**S. F. X. IKASKETA
BURUA**

USTEAK USTE

Haratuzteak: mozorrotu, aurpegia margotu edo maskara baten azpian gorde eta, anonimatoak ematen digun ausardiak, bestela egingo ez genuena egin; edo geure buruari beste edozein pertsona zein pertsonaiaren papera eman, beste bat garela pentsatu: egun bateko ilusioa!

Baina ilusio guztiei bezala bere bukaera heldu behar, eta ez makala heldu ere, Haratuzteen bukaerarekin Garizumaren hasiera heltzen baitzaigu: penitentzia eta barau garaia. Elizak horrela agintzen omen du behintzat; beste batzuek, baraualdiak egitea osasungarria ere badela esango dute, baina ziur naiz beste askorentzat derrigorrez bete beharreko Garizuma izango dela eta iraupen luzeagoa izango duena gainera; gure herriko hainbat lantegiren egoera ikusi besterik ez dago: langileak kaleratzen batzuk, ixteko arriskuan beste batzuk eta langabezia gero eta gorago.

Egoera honen aurrean guztion inplikazioa beharrezkoa. Ezin ditugu begiak itxi eta isilik geratu: “niri ez zait oraindik tokatu” pentsatuz. Erantzun bat eman eta irtenbideak bilatzea guztion lana da eta ez langabe daudenena soilik.

Ea hasi berri dugun Garizuma honi erantzun bat ematen asmatzen dugun, eta barandilak egitea bakoitzaren aukera eta ez derrigorrezko zerbait izaten den.

AMAIA JAUREGI ARRABURU

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

**Durana, 12
ARETXABAETA**



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkia

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76


Krisi egoera baieztatzeko, enplegua jaitsi eta espedienteak gehitu

INEMeko bulegoan aterako datuen arabera, 1992. urtean Deba Garaian 6.094 lan-kontratu tramitatu ziren, eta horietatik, finkoak 302 bakarrik izan ziren, %4,96a. Merkatuak eragindako beharrei erantzuteko kontratuak, zerbitzua eskaintzekoak, denbora partzialekoak eta kontratu interinoak, iaz sinatutakoen %76,55a izan ziren. Gainerako kontratuak, %19,40a beste mota batekoak izan ziren. Alfonso Moya, Deba Garaiko ELA sindikatuko liberatuak, 45 urtetik gorakoentzako kontratuen kopuru txikia azpimarratzen zuen, urte betean Deba Garai osoan bakarrik 6, "45 urtetik gorakoei, noizbait lana galduz gero, lan-mundura bueltatzeko dituzten aukerak bukatu egiten zaizkie".

Espedienteak enpresa askotan

Lanpostu berrietarako ezezki, zaharrentzat ere txarra izan zen 1992. urtea: espedienteak Deba Garaiko 55 enpresatan, 1707 ordain-eternaldi eta 389 kontratu-ezeptapen. Arrasaten, 20 enpresa izan ziren kaltetuak, 474 ordain-eternaldi eta 86 kontratu-ezeptapenarekin.

Zenbakiak nahiko argi adierazten dute egoeraren la-



rritasuna, baina egoera are eta larriagoa da pentsatuz gero aipatutako datuak, ofizialak, noski, Lan-Delegaziotik jasotakoak direla eta bertan ez direla agertzen inzentibatutako bajen edo borondatez lortutako akordioen bidez galdu diren lanpostuak, ezta aurrejubilazioei dagozkienak ere. Zentzu horretan, Arrasaten bertan aipagarriak dira Roneo eta Transformados Metalicos enpresen kasuak. Era berean, Lan-Delegazioko datuetan ez da kooperatibetako berririk jasotzen, eta iaz Mondragon Korporazioko

Kooperatibetan, Alfonso Moya ELAko liberatuak dienez, 200 aurrejubilazio baino gehiago eta barne-erregulazioko 45 espediente baino gehiago tramitatu ziren.

Langabezia antzera

Deba Garaiko krisiaren kuadroa osatzeko, lanpostu berrien ezari eta enpresetako arazoei, langabezia kopuruak gehitu behar zaizkie, eta alde horretatik ez dago aurrerabiderik. Iaz, urriaren lehen egunera arte, Deba Garaian 2.725 langabetu zeuden INEMeko bulegoan izena eman-

da, 954 (%35a) gizonezkoak ziren, beste 1.771 emakumezkoak (%65a). Izena emandakoetatik, 695 sekula lanik egin gabekoak ziren, %26a. Arrasateri dagokionez, urriaren hasieran gizonezko langabetuak 411 ziren eta emakumezkoak 819, guztira 1.230 pertsona, eta erdia baino gehiago %51a, 20 eta 29 urte bitartekoak ziren.

Aipatutako datu kezgarri horiez gain, Alfonso Moyak zioen dagoeneko euskaldun gazteen artean emigrazio mugimenduak ere, somatzen hasi direla.

BIONA

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

PAZI-OLA S.A.

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Sute batek bulego zaharra hondatu ondoren, berria jarriko zaio INEMi.

INEMeko eraikuntza berriak 98 milioitako aurrekontua

Udalak proiektuari baimena eman ondoren, INEMeko bulego berriak egiteko lanak hasteko oztoporik ez dago. INEMeko eraikuntza berria Nafarroa Etorbidean egingo da, hiru solairu izango ditu eta 98 milioi PTako aurrekontua erabiliko da.

Eraikuntza berriaren beheko solairuan, komunak, artxibategia eta bertara doazenei harrera egiteko edo eta informazioa emateko tokia izango da eta tramiteak edo kontratuak egin ahal izatekoa, guztira 13 pertsonak lan egiteko behar duten tokia; itxaron gelan, berriez, 10 pertsonarentzako tokia izango da.

Lehen solairuan, zuzendariaren bulegoa,

biltegia eta gestioa, autoenplegua, formazio okupazionala, orientabide profesionala eta prestazio sailak jarriko dira, 14 langilerentzako tokia. Azken solairua hitzaldi, ikastaro edo eta bileratarako erabiliko da, horrela bertan jarriko dira enplegu mahaiaren lokala eta hitzaldi edo ikastaroetarako bi gela, bata 20 aulkirekin eta bestea 30ekin, tabike bategaz banatuta eta biak elkartzeko aukeraz.

INEMeko bulego zaharra hondatu zuen sutearen ondorioz, Deba Garaiko langabetuen eskariak bideratzeko proiektua gauzatzaren denean eraikuntza dotore eta handia izango da, 735 metro karratu erabilgarri.

Tasak ordaintzeko laguntzak

Azken urteotan egin duen bezala, Udalak jubilatuei eta langabezia daudenei udal-tasak ordaintzen lagunduko die. Horretarako subentzioa eskatzeko epea zabalik izango da martxoaren 31 arte. Eskariak egin edo informazio zabalagoa eskuratu nahi izanez gero, nahikoa da Udaletxeko Gizarte Ongizate sailera zuzentzea.

Igerilekua itxita

Garbiketa lanak direla eta, pasa den 22tik eta datorren 28ra arte igerilekua itxita egongo da.

Ferixalekuan obrak egiteko baimena

Udalak, baimena eman dio San Frantzisko Xabier Ikastolari Ferixalekuko Ikastetxean birmoldatzeko obrak egiteko. Ikastolak obra bi fasetan egiteko eskaria aurkeztu zuen, baina Udalaren baimena obrak fase batean egiteko da. Ikastolak ez du eragozpenik ikusi era horretan egiteko.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Informazioa nahi baduzu zure esku duzu gure laguntza.




"Bezzeroaren telefonoa"

901- 20 20 20

Edozein zalantza konponduko dizugu:

- Hornidura-eskabidea
- Kontratazioa: altak, bajak, aldakuntzak
- Ordainagiriaren gaineko argibideak
- Ordainagiriak banketxean helbideratzea
- Kontadore irakurketak hartzea

Eta behar duzun beste edozer kontsulta edo informazio.

 IBERDROLA



Udaletxeko pleno aretoan gaur bi pleno, berezia eta arrunta.

Jugoslabiako bortxaketen aurka Emakunderen mozioa plenoan

Jugoslabin gertatutako emakumeen bortxaketak direla eta Emakunde aurkeztu duen mozioa, eta Jose Manuel Pagoaga "Peixoto"ren egoerari buruz Senideak Elkarteak aurkeztutako mozioa eztabaidatuko dira gaur arratsaldeko pleno arruntean, baita komertziala ez den publizitatea egiteko toki publikoak erabiltzeari buruzkoa ere, pleno berezian.

Emakunderen mozioak Jugoslabin gertatutako emakumezkoen bortxaketak salatzeko eta bortxatzaileak gerra-kriminalizat hartzeko proposatzen dio Udalari. Udalak proposamena onartzen badu, onarpenaren

kopia bana bidali beharko du Nazio Batuetako giza-eskubideen batzordera, Kanpo-araetoetako Ministeritzara, Jugoslabiako Enbaxadara eta Emakundera.

Senideak-en mozioaren arabera, polizia frantziar du "Peixoto" gartzelan edukitzeko arazoirik. Ondorioz, Udalari "Peixoto"ren askatasuna esijitu eta horretarako ahalegin guztiak egitea eskatzen dio, baita Frantziako Justizia Ministeritzari akordioaren berri ematea ere.

Plenoko beste puntuen artean, Udalaren aldetik, Erdiko Kaleko 44. etxebizitzaren erosketa proposamena da aipagarri.

'Peixoto' eta Zabarte egoera larrian

Jose Manuel Pagoaga "Peixoto" arrasatearra, otsailaren 15ean atxilotua izan ondoren, orain Fresnesko eritetxe penitentiarioan dago. "Peixoto" ia itxututa dago, oinez ibiltzeko arazo larriak dauzka eta eguneroko beharrei aurre egiteko pertsona baten laguntza izaten du, espetxeko ospitalean lortu ezin duena. Jesus Mari Zabarte, berriz, iaz 100 egun baino gehiago gose-greban pasatu ondoren, 6 hilabeteko isolamenduan sartu dute eta ez dago bere osasun-egoerari buruzko berririk.

Murugaingo aztarnategia

Murugaineko aztarnategiaren topografia lanak direla eta, Udalak Aramaio eta Aretxabaletako Udalei ordainketa hiruren artean egitea proposatuko die. Hiru herriek dute Murugaingo jabegoa, erdia Arrasatek eta beste erdia beste biak. Udalaren proposamena 517.500 PTAK proportzionalki ordaintzea da.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Aita eta semea, pirata eta ar-
lekina, **Iñaki eta Aratz**, biak
mozorroa jantzi eta hor ibili
ziren kalez kale. Hori bai,
ilunkera aldera, Aratz ahoa
zabaltzen hasi eta gau partean
etxera eraman beharra izan
zuten.



Haratuzteak **ez dira gazteentzat bakarrik** eta argazki honek
ondo frogatzen du hori. Neskame hauek aintzinako jantzi,
aspaldiko umeen kotxeak hartu eta hainbat buelta eman zizkieten
umeei. Baina, ez dago akats txiki bat? Mozorrorik gabeko bi
emakumeek, ea datorren urterako mozorroa prestatzen duten!



Hau bai dotorea! XVIII. **mendeko palazio baten eginiko
argazkia** dela dirudi. "Ohial horrek, hogeitahamar urte edo
izango ditu" esan zigun bere amak. Eta ez pentsa, detaile
txikiena ere ez zitzaion ahaztu, esku-larru eta guzti.

Umeak animatu ziren
lehendabizi. Astearteko
bazkal ostean ikastolara
joan ziren mozorrotuta eta
arratsaldean kolorez eta
bizitasunez bete zituzten
kaleak. Horra hor neskatila
horiek, **nagusiak eta
txikiak animatuz**, kalean
gora, kalean behera, dantza
eta dantza.



UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Onduline TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioak
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



Metroan ibiltzen diren eskalez osatutako talde horietariko bat aurkezten dizkizuegu argazki honetan, eta aurtengo haratuzteetako **mozorro lehiaketako irabazleak** izan direnak gainera. Hezurretairano sartzen den hotza egiten zuen astearte gauean eta talde honek eta Sebero Altuben sua ere egin zuten. Zorionak!



JABIER



Ez animazioa falta zutelako baina, umeak **Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoak** ere lagun izan zituzten astearte arratsal-

dean. Hor bai saltsa ederra: txano gorritxu, bikingo, katu, kapitain... eta beste asko eskilaretan jartzeko gogoarekin geratu zirenak.



A zer sorgin kuadrila! Eskoba eta guzti irten ziren kalera hauek, eta hemen eta han kalean pasatzen zirenen artean ipurdiko ederrak banatu zituzten. Nortzuk dira? galdetzen zuen jendeak. Eta zuk, igarri duzu zeintzuk diren?

M Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak
Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

S **SAMEGO**
GARBIKETAK
Urriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

SUKALDIAK *eya*

FAGOR
Miele

De Dietrich 
Européens d'Electroménager

GAGGENAU

ALNO Sukalde altzariak.
Elektragailuetan markarik onenak.

ALNOcup, zuri diamantea, beltza.



LORAMENDI KIROLAK

• Reebok

• Saucony

• Adidas


• Rombo

• Joma

• Ellesse

• John Smith

Gertu dauzkagu zuretzat
modelo berriak



Entrenamendua • Lehiaketa • Aisialdia

• Nike

• L.A.Gear

• Avia

• Asics


• Rox

• Converse

• Mito

Maiatzaren 1a Plaza ARRASATE Tfnoa: 79 97 24

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Kontzentrazioa, eraso eta defentsa onena

Bigarren faserako taldeak erabakita, berriz ere normaltasunez joango dira gauzak, sailkapenaren dudak sortzen duen urduritasun puntua alde batera utzita.

Hala eta guztiz ere, ezin da kontzentrazioerik galdu, hemendik aurrera jokoan jartzen diren puntuek garrantzi handia baitute. Kontuan hartu behar da multzo

bakoitzean zortzi talde bakarrik daudela eta talde bakoitzak zazpi partidu jokatu beharko dituela. Hutsetik hasi eta gehienez, hamalau puntu lor daitezke partidu guztiak irabazi ezker. Beraz, hamalau puntuei begira, argi dago edozein partidutan jokoan jartzen diren bi puntuen garrantzia handia dela. Denborak erakutsiko du.

**NUEVO
faberna**

Bañez Dokorea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE



DEBA
GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

SEGURASKI BAIETZ !

a

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	17	14	2	1	101	38	30
ZULOAK	17	14	1	2	68	32	29
LOS HEREDIA	17	10	4	3	77	32	24
BETRAYER	17	10	4	3	57	35	24
ARRASATE KIROLAK	17	12	2	3	77	41	24
URMAY B.K.	17	9	5	3	56	34	23
KAIXO LENIZ	17	10	2	5	68	65	22
DANOK LAGUN	17	8	4	5	56	35	20
BUKANAK	17	7	5	5	52	47	19
AIZPUN BILA	17	8	2	7	76	41	18
ITT	17	8	1	8	53	54	17
SIBILIUS ROVER	17	5	5	7	38	42	15
DRINK TEAM	17	4	3	10	30	64	11
DRAFT	17	5	0	12	72	82	10
WHISKERIA LINDE	17	4	0	13	51	82	8
RESAKAS 17	17	1	3	13	27	88	3
GARIBAI-5	17	1	1	15	24	81	3
AMOZKIBAR II	17	1	0	16	32	122	2
GUZTIRA	306	131	44	131	1015	1015	302

b

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	17	14	2	1	57	21	30
ZIZTI-ZAZTA	17	12	3	2	68	27	27
ZULUS	17	12	1	4	74	49	25
BIZKORRAK	17	11	3	3	40	26	25
DIEGO ANTONIO	17	10	3	4	61	35	23
JODO FLORO	17	9	5	3	47	35	23
PUBLICOOP	17	9	3	5	39	42	21
MOTZ	17	9	2	6	60	68	20
LA BANDA	17	7	2	8	49	43	16
KAKAJAURI	17	6	4	7	41	56	16
LAUTHERBRUNNEN	17	7	1	9	33	56	15
TRONKOTEAK	17	6	3	8	51	56	14
GATZBAKUAK	17	4	6	7	34	50	11
ANBOTOSTE K. T.	17	5	1	11	41	61	9
ATERPE KAFETEGIA	17	4	1	12	41	55	8
BAYERNE PROMESAS	17	3	2	12	26	69	6
FOSFOROS	—	—	—	—	—	—	—
KAJOI-TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	306	132	42	132	801	801	306

c

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	17	13	2	2	83	28	28
ADELAIDA-HAIZEA	17	13	2	2	103	27	28
NOSKI	17	14	0	3	96	41	26
TXOKO TABERNA	17	11	1	5	51	39	23
ARRASATE KRIST.	17	11	1	5	68	39	23
NUEVO TABERNA	17	10	2	5	68	53	22
LASO ARREGI	17	9	4	4	65	41	22
GURE LEKU	17	9	2	6	71	51	20
ALPARGATA TURBO	17	8	2	7	59	57	18
NAVARROS	17	8	1	8	57	57	17
ADOBE	17	8	0	9	51	60	16
AUF DEM KOFFER	17	6	2	9	42	53	14
GANBELAS	17	5	2	10	44	64	12
KRISKIBALDA	17	3	5	9	38	63	11
ATXANTA KE TE...	17	3	0	14	34	100	6
SEGUROS ORBITA	17	3	1	13	42	75	5
BALEIKI	17	2	1	14	23	81	5
ALLA KUIDAUS	17	2	2	13	31	97	4
GUZTIRA	306	138	30	138	1026	1026	306

d

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. IND. UGARTE	17	13	3	1	94	29	29
LEINTZ GARAGAR.	17	11	3	3	71	32	25
PEPELUS	17	10	4	3	62	38	24
POTROAK LORATEGI	17	10	4	3	64	41	24
LOS DIMY	17	8	6	3	78	41	22
NOTXINGAN FLO.	17	9	4	4	66	50	22
KOXXKAS	17	9	4	4	59	45	22
MONTERREY TAB.	17	10	1	6	73	39	21
ZOTZ	17	10	1	6	53	58	21
ARTZANKOS UDAL.	17	8	3	6	66	56	19
FOTO IMAGEN	17	7	3	7	68	54	17
SOKOAKOAK	17	6	1	10	58	74	13
UGLYS	17	5	1	11	41	57	11
SOLANO 7 MARES	17	5	0	12	49	64	10
OLEEE!	17	4	1	12	43	84	9
EZKINAKO HONTZAK	17	4	0	13	35	89	8
BAYERN DE LEINTZ	17	3	1	13	43	92	7
ILUNA TABERNA	17	1	0	16	26	116	2
GUZTIRA	306	133	40	133	1059	1059	306

Zarugalde kалан...

BRANKA
taberna

 **AMAJUR**
taberna

EGUNEKOMENUA • AFARIAK • JAUNARTZEAK

Zuloaga, 6 Tfnoa: 77 04 79 ARRASATE

FOTO
imagen
ARGAZKI



Zerkaosteta, 5
Tfnoa: 79 66 87 ARRASATE

LIZARRA
taberna

Leintzibar kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35



Askotan defentsek atea ondo babesten dute, baina aurrelariak gauza izaten dira atezainaren aurrean jartzeko. Argazkian hori gertatzen da, aurrelariak atzean utzi du defentsa bat eta defentsaina eta beste bat inguruan ditu, baina zuhur jokatu gero, aukera guztiak dauzka gola lortzeko.

BELARRIRA

◆ **Kanporatuak**
Kakajauri eta Resakas taldeak, nahiz eta ez sailkatu, txapelketatik kanporatuak izan dira. Kakajaurikoak ez ziren partidua jokatzera agertu eta Resakas-ekoek, jokatzeko ari zirela, partidua utzi zuten. Ondorioz Kakajaurik ez du afaria irabazteko aukerarik izango; Resakas-ek, berriz, irabazi zuen.

◆ **Arbitro berriak**
Moreno, Canacho, Txelis, Nicolas, Aizkora, Palacios, Perez, Zurbano eta antolatzaileen arteko beste lau lagunek arbitratuko dituzte bigarren faseko eta finalera arteko partiduko guztiak.

◆ **Afarien zozketa**
Aste honetako afarien zozketan, Arrasate Kristaldegia eta Allakuidaus taldeak izan dira sarituak.

◆ **Asteko partiduak**
Asteko partidu interesgarrienak: Los Dimy - Zuloak, Betraye - Los Heredia, Suministros Industriales Ugarte - Monterrey taberna eta Noski - Lorategi Potroak.

EMAITZAK

A TALDEA

Drink Team 1	Urnay B. King 2
Zuloak 3	Sibilus Rover 1
Bukanak 2	Danok Lagun 2
Betrayer 3	Aizpun Bila 2
Resakas 7	Draft18
Arrasate Kirolak 12	Amozkibar II 0
Los Heredia 8	Whiskeria Linde 4
ITT 8	Garibay-5 1
Argi Ibili 2	Kaixo Leniz 1

C TALDEA

Atxanta ke te... 2	Alla Kuidaus 6
Alpargata turbo 1	Noski 6
Laso Arregi 1	Nuevo taberna 2
Ganbelas 3	Navarros 5
Gure Leku 2	Seguros Orbita 0
Adobe F. C. 2	Arrasate Krist. 7
Trikiti 1	Txoko taberna 6
Auf Dem Koffer 2	Adelaida Haizea 7
Baleike 0	Kriskibalda 1

B TALDEA

Kakajauri 0	Lautherbrunnen 1
Bizkorak 3	Publicoop 3
Aterpe Kaf. - 7	Bayern Promesas 3
Zulus9	Anbotoste K. T. 4
Jodo Floro 3	Gatzbakuak 3
Diego Antonio 7	Motz 2
La Banda 3	Zizti-Zazta 7

D TALDEA

Monterrey tab.4	Koxkas 2
Foto Imagen 2	Artankos Udalaiz 4
Uglys 3	Los Dimy 3
Ezkiñako Hontzak 3	Oleee!! 2
Sokoakoak 0	Notxingan Flo. 5
Leintz Garagar. 2	Ugarte Sum. 3
Bayern de Leniz 12	Iluna taberna 4
Solano 7 Mares 2	Zotz 4
Potroak Lorategi 1	Pepelus 3

Trikiti S. L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 27

Zaldibar

- 08.45 Urmay B. King / Laso Arregi
- 10.00 Los Dimy / Zuloak
- 11.00 Kaixo Leniz / Diego Antonio
- 12.00 Betrayar / Los Heredia
- 13.00 Zuloak / Bizkorak
- 14.00 Publicoop / Zizti-Zazta
- 15.00 Gure Leku / Adelaida Haizea
- 16.00 Argi Ibili / Arrasate Kristaldegia
- 17.00 Koxka / Leniz Garagardotegia
- 18.00 Arraste Kirolak / Nuevo Taberna
- 19.00 Notxingan Florest / Danok Lagun

Igandea 28

Zaldibar

- 08.45 Mikelos / Jodo Floro
- 10.00 Sum. Ugarte / Monterrey Taberna
- 11.00 Pepelus / Txoko Taberna
- 12.00 Noski / Lorategi Potroak
- 13.00 Trikiti / Motz

MULTZO BERRIAK

A taldea

Argi Ibili, Zuloak, Pepelus, Txoko taberna, Arrasate Kirolak, Nuevo taberna, Los Dimy eta Arrasate Kristaldegia.

B taldea

Suministros Industriales Ugarte, Zizti-Zazta, Noski, Potroak Lorategi, Kaixo Leniz, Diego Antonio, Publicoop eta Monterrey taberna.

C taldea


Mikelos, Adelaida, Zulus, Bizkorak, Notxingan Florest, Danok Lagun, Gure Leku eta Jodo Floro.

D taldea

Trikiti, Leniz Garagardotegia, Betrayar, Los Heredia, Urmay Burger King, Laso Arregi, Koxkas eta Motz.

NON DAGO BALOIA?

Hile honetako **Non dago baloia?** lehiaketak irabazle bikoitza izan du, **Pili Otadui** eta **Espe Mendizabalek** bien artean txarteltxo bat bidali baitziguten. Orain, lagun onak bezala, banatu egin behar. Biei zorionik be-roenak eta Arrasate Kirolak-en kirol-materialean 20.000 PTako saria. Parte hartu zuten beste guztiei, berriz, ez etsitzeko gomendioa, segi orain arte moduan eta hurrengoan Non dago baloia? lehiaketaren saria zuretzat izan daiteke.



14. astea

Non dago baloia?

- Erantzuna
- Izena
- Tfnoa

Trikipublic

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- **Publizitate kanpainak** •
 - Diseinu grafikoa •
- **Artikulu publizitarioa** •
- **Zuzeneko publizitatea** •
- **Bideo produkzioa** •

● Joxe Azurmendi

Espainol eta euskaldunei buruz hitzeginez

Joxe Azurmendi, zegamarra. Arantzazun fraile egon zen, filosofia ikasi Erroman, Alemanian urte batzuk egin eta orain Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da. Arrasateko kooperatibismoaren sorrerako pentsamenduaz, 'El hombre cooperativo' liburuak idatzi eta doktoretza tesia aurkeztu zuen. Orain 'Euskaldunak eta espainolak' liburuak kaleratu du arrakasta handiz.

— *El hombre cooperativo*, erdaraz idatzi duzun liburu bakarra?

— Bai, Jose Mari Ormaechearen enkarguz idatzi nuen. Lau urte pasa nituen artxiboak arakatu eta liburuak idatzen; lan handia izan zen baina laguntza ere horrelakoa izan nuen, batez ere Maria Jesus Zabaleta eta Juanito Leibarrena.

— Arizmendiarieta primeran ezagutuko duzu, ezta?

— Gogo barik hasi nintzen Arizmendiarietarena egiten; are gehiago, Arizmendiarieta eta kooperatibismoaren aurkako prebentzioarekin, sozialki beste tradizio batetik baintorren. Ormaecheari eman nion informea nahiko ezkorra izan zen. Hala ere, Ormaecheak neuri eman zidan enkargua.

Lanaren bigarren urtean Arizmendiarieta tipo harrigarria zela deskubritu nuen, miresten dutenek uste dutena baino harrigarriagoa, zeren berak erakutsi zituen fazeta batzuk, baina erakutsi ez zituen beste asko dauzka. Beragana errespeto erraldoia daukat, herri honetan izan diren figura interesgarrien artean bakanetakoa da eta bere arloan, pertsona eta lanaren arteko harremanen arloan, baita European ere, Bacon edo Karl Marx-en mailakoa.


— Goian jarri duzu e!

— Sinistuta nagoelako esaten dut, eta Donostian edo Colonian esatea Arrasaten esatea baino errazagoa da.

— Azken aldean, beste bi liburu ere idatzi dituzu.

— Bai, "Giza aberearen bakeak eta gerrak" eta "Espainolak eta euskaldunak". Biak lotuta daude nolabait, batek pertsonaren askatasuna lortu nahi du eta besteak komunitatearena, Euskal Herriarena. Gizakiaren memoriak identitatea sortzen du eta herrien kasuan berdin. Memoria kolektiboaren askatasuna lortu nahi dut, norbere miseriak lasaitasunez onartzea eta garen bezalakoak izateagatik poztea, pertsona eta herri bezala.

● **"Memoria kolektiboaren askatasuna lortu nahi dut, norbere miseriak lasaitasunez onartu eta garenagatik poztea, pertsona eta herri bezala"**



— "Espainolak eta euskaldunak" liburuan intsultuaren gaia aipatzen duzu zabal-zabalean, zein zentzutan?

— Liburuak alderdi serioak eta dibertigarriak dauzka. Dibertigarrien artean, jasotzen da espainolek nola esaten duten tontoak garela, inkultoak, basapiztiak, hitzegiten ez dakigula... Juantxo de Mondragón bat agertzen da "tonto rematado" bezala, eta horrelako adibide ugari daude, euskaldunen lepotik burla egiteko erabilitakoak.

— Liburuak irakurtzeko erreza da?

— Askok esan didate latinezko parrafo asko daudela, eta zergatik sartu ditudan galde-tu... ba zitak direlako, dokumentazio historikoak. Edozein modutan, euskaraz esaten da latinez agertzen dena, beraz latinez egin salto eta segi eta horrela ez da zaila.

— "Ez dago espainiar bategen onar dezakeen euskal nazionalismorik", zeuk esana...

— Batzuk nazionalismo moderatua, arrazoizkoa eta desdramatizatua asmatu nahian ari dira, espainolek azkenean euren nazionalismoarekin onar ditzaten. Bada, sekula ez da asmatuko espainolek onartu ahal izateko moduko nazionalismorik, ez baitute sekula onartuko nazionalismorik, ez moderaturik eta ez erradikalik.

— Euskal Herria kontzientziaren azken ospitala ei da.

— Hainbeste urte biktima bezala pasa eta gero, ez dugu Euskal Herriko kontzientzia normaltasunez eta zauri barik, euskalduntasunari naturaltasun bat eskatzen ari gara, eta eskatzen ari garen bitartean, ez gaude sano, mina daukagu. Beraz, ospitalean gaude.

— Zergatik bi liburuak?

— Esateko gogoia neukan eta, gure arazoa zein den konfaturatu naizenez, neure herriari eta herritarrei esan egin nahi nien.

Eskola Politeknikora ikastera etorritakoak

Beñardo Kortabarria

Mikel, Gari, Dorleta, Jon eta Xabier Eskola Politeknikoko ikasleak dira, gipuzkoarrak, baina ez Arrasate ingurukoak eta ondorioz, astean zehar hemen bertan bizi dira. Mikel, Gari, Dorleta eta Jon, Biteri Egoitzan bizi dira; Xabier ez, lehen bai, baina orain alokatutako pisu batetan dago.

EGOITZA, HOTEL TXIKIA

Biteri Egoitza pelikuletan ikusten diren unibertsitate-tako campus-en antzerakoa da, baina dexente txikiagoa. Edozein ikasleren beharrak ase daitezke Egoitzan bertan: janaria, ohea, ikasteko tokiak, aisialdirako ekintzak, kirola egiteko aukerak... etxean bezala egoteko aukera.

Une honetan 320 ikasle daude erresidentzian, horietatik 24 emakumezkoak, gehienak gipuzkoarrak eta ondoren arabar eta bizkaitarrak, garai batean naparren kopurua handia izan bazen ere. Logelak, ikasgelak, dutxak, telebista gelak, prentsa gelak, te-

lefonoa, taberna —futbolin, billar, sukaldetxo eta guzti— eta erresidenteen lokalak Biteri Egoitzan bertan daude; jangela, gimnasioa, garbigailua etab. egoitza aurrean, bost metrotara. Neskak elkarrekin daude gelan eta bainugela bertan dute, mutilenak, be-

rriz, pasiloan daude. Logela bakoitzean, neska zein mutilenean, lau lagun bizi dira, beraz, elkarbizitzan ahalegin berezia egin beharra dago.

MERITU-SISTEMA

Biteri Egoitzan denak batzorde-sistemaren bidez fun-

zionatzen du, kultur arloko ekintzak antolatu, dokumentalen bat jarri edo beste zerbait egiteko, komenigarria da batzorderen baten egotea. Jende asko batzordeetan bere kabuz sartzen da, baina beste asko ez, batzordeetan egoteak ematen dituen puntuak bila baizik, Egoitzan egoteko lortu behar diren puntuak bila. "Jendea ez dago ados sistema horrekin, aurkako iritzia nabarmena da, baina protestarik ez du egiten eta hemen jarraitu nahi badu, ez du gainera beste erremediorik". Modu batera edo bestera, Biteri Egoitzak funtziona dezan, zuzendari bat eta 4 monitore daude, ikasleen eta aurreko monitoreen proposamenez aukeratuta; neurri handi batean, monitoreen lana ezinbestekoa da Egoitzan gauzak aurrera eramanean daitezen, ardura ugari hartzen baitute.

IRTEN BEHARRA

Mikel, Jon eta Dorletak noizbait pisuren batetara joateko tentazioa izan dutela aitortzen dute, baina ez dute



Ikasleek, Biteri Egoitzako lokalean sukaldea, taberna eta hainbat joku dituzte.



Ezkerretik eskumara: Mikel, Gari, Dorleta, Xabier eta Jon, Biteri Egoitzako gela bateko ohe batean jarrita.

erabakirik hartu. Mikel eta Jon esate batera, iaz bero-bero ibili ei zien pisu baten bila, baina azkenean Egoitzan geratzea erabaki zuten. "Ez gaizki geundelako, pisu batetako bizitza probatu nahi genuelako. Azkenean ez zen ezer irten, oso garesti ateratzen baitzen". Gari, ordea, sekula aldetzeko gogorik ez duela izan dio, Biteri Egoitzan primeran bizi dela. "Hemengoa oso bizi-modu eroso da, dena eginda ematen didate, gosaria, bazkaria, afaria eta gainera, eskola bertan daukat, oso denbora gutxi galtzen dut". Beste laurek ez bezala, Xabierrek aurten eman du saltoa, ikasurtea hasi zenean Egoitzan zegoen, baina pisu batetara joateko aukera izan zuen eta ez zuen bi aldiz pentsatu. "Pisuan askoz ere hobeto nago, askatasun handiagoa dauka eta etxeko lanei ez diegu denbora gehiegi eskaintzen, ezta janaria gertatzeari ere. Ikasi nahi duenak, inori trabarik egin barik ikas dezake, gaez lan egin nahi badugu gaez egin dezakegu. Hori bai, Egoitzan ere, logelako lagun arteko harremanak onak izanda, inori trabarik ez

egiteko ahaleginak egiten dira". Xabierren kasuan, etxeko lanei eta janari kontuei ez zaie denbora gehiegi eskaintzen; beste pisu batzuetan, aldiz, sukaldari bikainak aurki daitezke. Egia esan, Xabierrek zorte dexente izan du pisua aurkitzerakoan, gaur egun hilero 35.000 PTA ordainduta Arrasaten pisua alokatzea txollo dexentea da eta, gainera Xabierrena bezala zeharo gaizki ez badago, txo-

llo handiagoa. Hala eta guztiz ere, erresidentzia edozein pisu baino merkeago ateratzen da normalean, bakoitzari 25.000 PTA inguru hileko.

ORDUTEGI KONTUAK

Ikasle finen kasuan, ez dirudi pisu batetako edo Egoitzako bizitzak oso desberdinak direnik, kalera gutxi irten eta liburuei denbora asko eskaini. Beharbada, pisuetako abantailarik nabarmenena ordutegirik eza izan daiteke: Biteri Egoi-

tzan gosaldurako nahi duenak, 7.15etatik 8etara gosaldurako ez dago, hortik aurrera ez. Bazkalordurako ez da ordutegiari dagokionez arazorik izaten, bi txanda egiten dira eta, baina kolan egon beharra bai. Gauetako kontua, bestelakoa da; Egoitzako lokala, kontuan hartuta bertako arduradunak ere lo egin eta ikasi egin behar duela, goiz samar ixten da, baina nahi izanez gero, ez dago inongo mugarik telebista ikusi edo libururen bat irakurtzen edo beste zerbaitean behar beste denbora pasatzeko. Arazoak, kalera irteten duenentzat izaten dira, beheko atea hamabietan ixten baita, nahiz eta ordubiak arte zeladore bat bertan egon. "Egun berezietan, ihauterietan esaterako, gauza bereziak egiten dira eta horrelakoetan ikasleatariko batek atezain lana bete behar izaten du". Pixuetan, noski, ez dago horrelako arazorik.

Biteri Egoitzan dauden laurek, zein Xabierrek, nahiz eta pisu batean bizi, ez dute kalerako joera handirik, azkenean Arrasaten ikasteko baitaude eta ez parrandan ibiltzeko.

Lehen nobatada hura

Kanpotik begiratuta, badirudi Egoitzara iristeko lehen eguna gogor samarra izan behar duela, toki eta lagun ezezagunengana iristea esan nahi du eta. Hala ere, Mikel, Xabier, Gari, Dorleta eta Jon-ek diotenez, denak berriak izateak asko laguntzen du ondorengo harremanak estutzeko. Normala denez, nobatada ere jasan egin behar izan zuten, "baina primeran pasa genuen, pijama jantzi eta inguruko tabernetan txikiteoan. Hurrengo urtean, berriei gauza bera egin genien eta enbidia ematen zuten".

Orditik denbora pasatu da eta dagoeneko Egoitzako martxan sartuta, tunan, taila taldean, argazki taldean, dantza taldean, abesbatzan edo beste talderen baten daude gehienak, liburuak alde batera utzitakoan Egoitzak eskaintzen dituen aisialdi-aukeretan.

Eskoriatzako familia bat Himalayako Cho Oyu mendira

Roman Ezeiza eta Garbiñe Uribe senar-emazteak, datorren martxoaren 28an, euren alaba Naiararekin eta beste bost lagunekin Cho Oyu mendirako bidean jarriko dira. Hiru eskoriatzarrekin doazenak: César Izar de La Fuente, Patxi Sanchez eta Alvaro López de Arbina gasteiztarak, Kiko Betelu iruñearra eta Luis Laborda kataluniarra.

Roman, Garbiñe eta Naiararen mendi-historiala ez da oso zabala, Euskal Herriko mendi gehienak, pirineoak ondoren, handik Alpeetara eta azkenik, Akonkagua joan den urtean.

Kanpotik begiratuta, Himalayara joateko erabakiak, esperientzia txiki hori kontuan hartuta, arriskutsua dirudi. Edozein modutan, Naiara eta Garbiñe ez dira uste berekoak eta ez diote beldurrik Cho Oyu mendiari. "Himalayetako mendietatik jende gehien igo dena da. Teknika aldetik ia ez du zailtasunik, ibili eta ibili, joan eta joan. Azken aldean serac bat dago eta huraxe da tarterik korapilatsuena, baina aparte-ko zailtasun barik". Zailtasunei begiratu barik aukeratu zuten Cho Oyu-a, hasieran beste batetara joatea nahi baitzuten, baina baimenik ez lortzean dagoenarekin kon-



Naiara Ezeiza eta Garbiñe Uribe, ama-alabak.

formatu behar.

Gailurreraino igotzea lortuko balute, Naiara Ezeiza 8.000 metrotako mendi batetara iristen den emakumerik gazteena izango litzateke.

Mendiak berak, behintzat Garbiñe eta Naiarak ziotenaren arabera, ez du zailtasun

handirik; bertaraino hurbiltzeak, aldiz, arazo ekonomiko larriak ekar ditzake. Bidaia-aren aurrekontua 8 milioitakoa da, eta Astore, Arrasate Kirolak eta Dunia Tours etxean laguntza izan eta kamisetak salduta ere, 4 milioi beraien poltsikotik jarri beharko di-

tuzte, instituzioen aldetik ez baitago inongo laguntzarik. Guztira 3.000 kamiseta atera dituzte, salgai Irati eta Bionan Arrasaten, Murrukixo eta Urbaltzen Aretxabaletan, Aldatz, Namaste eta Mirentxun Eskoriatzan, 1000 PTA manga motzak eta 2000 manga luzedunak.

Igoko duten edo ez jakiteko itxaron egin beharko da, baina edozein modutan entrenamendu berezietan ari dira azken egunetan, "asteen hiru aldiz entrenatzen dugu eta asteburuetan Pirineotara joaten gara ibilbide luzeak egiteko". Akaso ahaleginak alper gertatuko zaizkie, baina edozein modutan Naiarak bazuen erremediori, "merezi due-lakoan gaude, edozein mendizalarentzat hara joatea da ametsa".

Cho Oyu

- 8.201 metrotako garaiera.
- Euskaldunek, arabar espedizio batek, lehen aldiz 1985ko maiatzean igo zuten.
- Atxo Apellaniz arabarrak bi aldiz igo du.
- Amaia Arantzabal bergararrak, iazko irailean, igotzea lortu zuen Josu Bereziartuarekin batera. Gailurrera iristen zen lehen emakume euskalduna eta baita 8.000 metrotako mendi bat igotzen zuen lehena ere. Hiru egunetara, Pili Ganuza bizkaitarrak gauza bera egin zuen. Biek izozketak izan zituzten.
- Euskaldunek Himalayan gehien zapaldu duten gailurra da.



Cho Oyu mendia, 8.201 m.

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XAHIO

ANGELA UNZUETA

Novecentoesklusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

EsLu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

PENALTIAK

● **Badirudi aurtengoa dimisioen denboraldia izango dela. Alde batetik, Jose Mari Balzategi eta bere zuzendaritzak denboraldia bukatu eta gero saskibaloit taldea uzteko erabaki finkoa erakutsi dute. Bada gaurkoan sorpresa bat txutxumutxuen sail honetara: Joxean Aranburuzabalak Eskubaloit taldean 16 urte lan egin ondoren, maiatzean taldea uzteko asmoa dauka, dagoeneko nekatuta dago eta.**

● **Mondrako emakumezko taldeak asteburu honetan Orion jokatu du partidua. Irabazi edo galdu, arrasatearrak arratsaldean Erreala eta Balentziaren arteko partidua ikustera joango dira.**




Deba Garaiko Txirrindularien aurkezpena Dorletako Santutegian

Dorleta Txirrindulari Elkarteko taldeen aurkezpena egin zen joan den asteko larunbatean. Ohienez, lehenik txirrindulari, entrenatzaile, direktibo eta hainbat gurasok ere, meza entzun zuten Dorletako Santutegian. Meza bukatu eta gero, taldeen aurkezpen ofiziala Gure Ametsa aurrean eta ohizko luntxa. Argazkiak ondo baino hobeto adierazten duenez, Kepa Urainek, taldeetariko baten entrenatzaileak, txirrindulariei animoak emanez, bertso-saioa eskaini zien Dorletako Santutegian bildutako guztiei.

Ze esperantza Deba Arroa pilota txapelketari begira?

Bi kategorietan nahiko ondo, infantiletan finalera iritsiko gara eta jubeniletan ikusi egin behar.



JUAN OSINAGA
Pilota Elkarteko partaidea

EMAITZAK

Saskibaloia

Seniorrak: Gizonezkoak, Juven 78 - Arrasate 69
Emakumezkoak, Bergara 44 - Arrasate 64
Jubenilak: Emakumezkoak, Arrasate 52 - Janak Donosti 34
Kadeteak: Gizonezkoak, Amigos Baloncesto A 56 - Arrasate A 80
Arrasate C 46 - Iraurgi 53
Kadeteak: Emakumezkoak, Almen 42 - Arrasate A 37
Emakumezkoak, Almen B 45 - Arrasate B 40
Hurrengo partidua
Emakumezkoak, Arrasate - Donosti, igandean 12etan.
Juniorrak: Arrasate - Juven, Musakolan igandean 12etan.
Jubenilak: Arrasate A - Izarra, Musakolan larunbatean 4etan.
Kadeteak: Gizonezkoak, Arrasate A - BKL CAF, Musakolan larunbatean 12etan.
Almen - Arrasate C, Almenen larunbatean 4etan.
Iraurgi - Arrasate B, Azpeitian larunbatean 11etan.
Emakumezkoak, Arrasate A - Janak Donosti, San Viatorren igandean 12etan.
Arrasate B - Zahor B, San Viatorren larunbatean 4etan.

Rugbya

Seniorrak: Arrasate Kirolak 8 - Elorrio 55

Jubenilak: Arrasate Kirolak 31 - Hernani 5
Kadeteak: Arrasate Kirolak 59 - Elorrio 0
Hurrengo partidua
Seniorrak: Getxo - Arrasate, larunbatean Getxon 3etan.
Jubenilak: Ostadar - Arrasate, larunbatean Zarautzen 11.30etan.
Kadeteak: Irun - Arrasate, larunbatean Irunen 3etan.

Futbola

3. maila: Real Union 2 - Mondra 1
Preferentea: Alegria 9 - San Andres 0
Emakumezkoak: Arrasate 14 - Intxaurdi 0
Ohorezko maila: Mondra 0 - Anaitasuna 2
Jubenilak, lehen maila: San Andres 0 - San Ignacio 0
Jubenilak, bigarren maila: Arrasate 1 - Urki 1
Kadeteak: Urola 3 - Arrasate 1
Haurrak: La Salle 1 - Arrasate 1
Arrasate 1 - Urki 3
Hurrengo partidua
3. maila, Mondra - Tolosa, Atxabalpen, igandean 4.45etan.
Preferentea: San Andres - Atletico Alavés, Atxabalpen larunbatean 4.30etan.
Kadeteak, bigarren maila: Arrasate - Urki, Atxabalpen igan-

dean 11.30etan.
Haurrak: Arrasate - Real Union, Atxabalpen larunbatean 10.45etan.
Arrasate - Soraluze, Atxabalpen larunbatean 12.15etan.

Pilota

• Deba Arroa Txapelketa, igandean Iturripen, goizeko 11etan Antzuolako pilotarien aurka.
• Gipuzkoako Kopa, Iturripen larunbatean, goizeko 11etan Zegamako pilotarien aurka.

Eskubaloia

Kadeteak: Hondarribi 17 - Arrasate 12
Jubenilak: Arrasate 18 - Aloña 23
Juniorrak: Urola 17 - Arrasate 33
Seniorrak: Karmelo 31 - Arrasate 19
Hurrengo partidua
Kadeteak: Arrasate - Bizkor, larunbatean Iturripen arratsaldeko 4etan.
Juniorrak: Arrasate - Mutriku, larunbatean Iturripen arratsaldeko 5.15etan.
Seniorrak: Arrasate - CAF Beasain, larunbatean Iturripen arratsaldeko 6.30etan.

Zarraoa

ESTETIKA ZENTRUA
Lurrundegia, opariak, jostailuak

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

PUB HAIZEA



HEZIBIDE

Matrikulazioa zabalik!

- ◆ **PROIEKTU EUSKALDUNA.**
- ◆ **ERREFORMARA EGOKITUA.**
- ◆ **TALDE PEDAGOGIKO SENDOA
ETA ERAGINKORRA.**

Izenematea martxoaren 1etik 15era.



UMEZAINZA

Haur-Eskola

0-6 urte

Tfnoa: 79 01 02



SAN FRANTZISKO XABIER

Ikastola

2-16 urte

Tfnoa: 79 26 40



SAN VIATOR

Ikastola

6-20 urte

Tfnoa: 79 04 11



Erreketa aurretik hiribildua eraikita zegoen.

1448ko erreketaren aurretik (I)

Mondragoek 1448ko ekainaren 23an izan zuen erreketari buruz datu asko agertzen dira, baina ez horrenbeste erreketari horren arrazoiez. Antza denez, garai hartarako forudun herria zen Mondragoe, “de realengo” esaten zitzaion hiribildua. Etxeak kanpotik harri-zkoak ziren eta barruko egitura egurrezkoa, eta 1260tik aurrera Santa Barbara mendixkaren eskumako magalean eraikia, tontorrean gaztelua zuelarik. Harresiek isten zuten, eta kanpokaldetik zazpi ate zituen.

Herriak desenteko aberastasun industrial eta merkataritzakoa zuen, bertako

mehategi eta burdinolengatik batez ere. Antolaketa aldetik, forua zeukaten, beti ere Jauntxoek egitura horren funtzionamendua mehatxatu arren. Herriaren barruan bi familia handiki zeuden, bando bi osatuz bezala, bata bestearen kontra. Horietako bakoitza eskualdean borrokan zeuden bando baten aldekoa zen; Oñatiko Jaunak, ez zituen begi onez ikusten Arrasate bezala Probintziako Hermandadekoak izan eta Erregeren mende zeuden herriak, bailararen erdian egon eta bere boterea mugatzen zutelako. Baina erregek edozein etsairen aurka babetu egiten zituen hiribil-

duok, eta herritarrek oraindik ere askotan Jauntxoaren esanak betetzea bete erremediorik ez zuten arren, badirudi feudalismoa indarra galduaz zihoala.

Herri bakoitzak, beraz, bertan bizi zen Jauntxo batek gobernatzen zuen, baina Mondragoen bi talde zeuden: oinaztarrak, Guraya familiaren babesean eta gehiengo herrian, eta beste aldetik, Ganboatarrak, Bañez familiaren esanetara eta gutxiengo osatuz. Baina talde bakoitzak bere alkatea, regidorea, kofradiak, juntak eta ospitalea zituen, eta hala iraun zuen mende bat baino gehiagokoan zehar.

SUTONDOA

ANJEL ABELETXE ETA BITTORIANATXO SORGINA (III) (Gertatua)

*G*ure Anjelek, jostunak etxean zituenean, arratsaldeko txokolate garaian ikustalditxo bat egiten zien hauei, eta haiek eskainitako txokolate zopatsuz ahoa, eta eurekin pasatzen zuen hizketaldi atseginarekin bihotza ederki gozatuta, tiro batekin txori bi botata, poliki zebilen, aldi hartan behintzat. Baina egun batez, neska gaixook isilka misilka eta oso bildurti hizketan ari zirela idoro zituen. Sorgin kontuak baitzerabiltzaten!

Anjelek, orduan, neska haiekin kupituta, ahots nahiko sendo eta ozenez esan zien, sorginengatik ezerean bildurrik ez izateko, eta oherakoan atek ondo itxita lo lasai egiteko, giltzazulotik sorginik ez zitzaiela sartuko eta; baina kontzejju hauek ez zituzten neskek bakarrik entzun, baita sasia bitarte zela ortuan zebilen Bittorianatxok ere.

(Jarraituko du)

ARREGI TAR TIBURTZIO

“PAL”

Burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri Etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99



GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA

Otatora z/g
Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**



77 05 65



1957ko otsailak 26

aratuzeak edo Ihafteriak artean debekatuta zeudene-ko erretratuak dakargu aste honetan. La Asunción Ikastetxean, berez Arrasate zen lekuan zegoen kolegioaren edifikazioan bertan, Ikastetxe-ko eguna ospatzen zuten urtero jaialdi batekin, otsailaren 20an, **Ama Maria Bartolomé Errazu** "Reverenda Madre"aren egunean. Jai handia izaten zen, eta egun horretarako prestatzen zuten ikuskizunerako jantzi bereziak prestatu behar izaten zituzte neskatilek. Eguna mezarekin hasten zen, **Don Celestino** Kapeilauak

emandako mezarekin. Apaiz jaun horrek berak latineko klaseak ere ematen ei zituen kolegioan. Meza kantatua izaten zen, oso koru ona zegoen eta ikastetxean, eta galako jantziekin joaten ziren neskatilak, eskularri zuri eta eskuz egindako bainikadun jantziekin. Lepoan gurutze handi bat izaten zuten, eta monjen aurretik pasatzean burua makurtu behar izaten zuten. Mezaren ostean luntxa izaten zen, **Juana Bartolomé Errazu** "Madre Ecónoma" k egindako natazko gailera eta mezatarako ardo goxoarekin.

Arratsalde partean izaten zen ekitaldi nagusia, "velada artística" deitzen ziotena, eta bertara herriko autoritateak etortzen ziren: apaiza, botikarioa, Zerrajerako ordezkariak, medikua, Guardia Zibila etb.

1957ko erretratu honetan, ezkerretik hasita eta Txinatar jantzita antzerkia egiten, **Mari Feli Urberuaga**, Bizkaiko Arteakoa, Kolegioan interna zegoena. Bere ondoan **Lurdes Egizazu Otadui**, **Jesusita Atxa Madinabeitia**, **Elena Nazabal** oñatiarra, eta **Rosita Agirre Otadui**.

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

UGARAN
jantetxea

Arreta handiko
sukaldea
Giro abegikorra

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Garajea salgai** Uribarri Etorbidean. Tfnoa: 79 85 24.
- **Arrasatenedo inguruetan eskailarak gabeko etxe baten bizileku edo logela behar dut.** Dei egin 77 05 65 tfnora.
- **Garajia salgahi, itxitxa.** Atxabaltan, Errekabarrenen. Tfnoa: 79 58 98.

Lana

- **Esperientziadun neska prest dago umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- **Etxetik lan eginez dirua irabazi nahi duzu?** Bidali sobre bat zure helbidearekin eta zigilu eta guzti helbide honetara: 161 Postakutxa. 20.550 Aretxabaleta.
- **Esperientziadun andra gertu dago umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko** edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 72 92.
- **Latin eta griegoko klaseak emango nituzke.** Tfnoa: 79 50 88. Garbiñe.
- **Neska bat prest dago umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 39 49.
- **Esperientziadun neska prest** etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 72 92.

- **Esperientziadun mutilak pertsona nagusiak zainduko lituzke.** Atarteak garbitzeko ere prest nago. Tfnoa: 79 50 30. Jose Miguel.
- **Andra euskalduna etxeko lanak egin** eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Emakume euskalduna arratsalde** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 77 05 90.
- **Alemanez mintzatu nahi duzu?** Metodo erreza eta atsegina. Ama-hizkuntza ikasi zenuen bezala, gramatika gabe, ordua aukeratuz. Tfnoa: 79 41 23. Altzaga jauna.
- **OHOko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Esperientziadun neska euskalduna behar da** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Dei egin 79 21 63 tfnora. Utzi mezua erantzungailuan.
- **Frantzeseko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 45 51. Eva.

- **PCrako 2MB-ko RAM memoria (SIMM-ak).** Prezioa: 9.000 PTA.
- **"Ideal 1.034 A" Din A-4 neurriko gilolina.** Guzti hauetarako dei egin 77 08 15 tfnora. Kepa.
- **Fagor markako etxeko labe elektrikoa salgai.** Oso egoera onean dago eta prezioa ere oso ona da. Gaineko (enzimera) su elektrikoa oparrian doa labearekin. Tfnoa: 79 82 47. Marielen.
- **Yamaha 250 c.c 88. urtekoa eta Kawasaki 125 c.c 87. urteko motorrak salgi.** Dei egin 71 42 22 tfnora. Jon.
- **Moto Guzzi California Custom salgai.** 450.000 PTA. Tfnoa: 79 87 62. Joxe.
- **Nintendo kontsola eukonektorea behar duena salgai** 7.500 PTA. Hainbat joku 3.000-5.000 PTA artean. Tfnoa: 71 40 19. Igor.
- **Nissan Vanette SS-AG furgoneta salgai.** Tfnoa: 51 51 41

Salerosketak

- **Salgai:** Garbitasuna egiteko Vaporetto bat, Ormako erloju bat, Wasili jarlekua, zutikako lanpara eta kuadro batzuk. Aprobetxatu aukera! Tfnoa: 79 64 50. Milagros.
- **Salgai Taunus Tropicano 10-F berogailu-haizagailua.**
 - **Mepamsa 542 DSE butanozko berogailua.**

Denetarik

- **Leioara eguneroko joaten naiz kotxez.** Zuk ere bidaia bera egiten baduzu, elkarrekin joan gaitzake, kotxea baduzu hobe. Dei egin aste-buru eguerdian 79 50 20 tfnora. Ima.
- **Erloju bat topatu nuen Monterron aurreko zelaian,** zurea bada, Maala kaleko "Arrabala" dendatik pasa edo dei egin guez 79 80 25 tfnora.

Aste Gazte

Espeleologia irteera

• Martxoaren 7an. Izenemateak: astearte, asteazken eta ostegunean, 7.30etatik 8.30etara, Besaideko egoitzan. Prezioa 200 PTA.

Ikastaroak

• Eskalada ikastaroa, 14 urtetik gorakoei zuzendua, Bergarako kiroldegian. Martxoak 1etik 15era. Astelehen, asteazken eta ostiraletan, 7etatik 8.30etara. Edozein udal kiroldegitako

bazkideentzat 1.000PTA eta gainontzekoentzat 2.000.

• Mendi eski ikastaroa. Martxoak 6-7 eta 13-14. Hastapena eta hobekuntza mailak. Prezioa: 18.000 PTA.

Bekak

• Atzerriko hizkuntzaren bat menperatzen duten goi mailako tituludunei zuzendutako bekak. Epea: martxoak 5.

• Atzerriko Unibertsitateetan ikasketak sakontzeko

bekak. Arloak; Ekonomia eta Europako Komunitateen Zuzenbidea. Epea: apirilak 15.

Lehiaketak

• Arabako Jaietako kartel iragarleen lehiaketa: San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mari 1993. Teknika librea. Epea: martxoak 8.

Hitzaldia

• "Afrika: oraina eta geroa" larunbat honetan goizeko 11.30etan Bergarako UNEDen. Zaireko Lubumbashiko Unibertsitateko irakasle baten eskutik.

"Itsasapoak haurtzarora gogorarazi zion eta, urte haiek txarrak izanda ere, nostalgiaren makiltxo luzeak ikututa sentitu zen".

T. CAPOTE

"UNA CASA DE FLORES".



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

BERTSOAK

PEÑA-KERIXAK (SALGAI)

1
Aita Jainkoak egin banindu zerueta giltzari lehenengo ordutik jakingo nuke atea nori ireki lehenik Mañuri, gero Peñari gero Jon Sarasuari ta azken orduan ixil-ixilik Antonio Egañari.

2
Neure burua bertsolari on bezala nuen nonbratu eta Peñari esana nion 'hobe duzu jubilatuz' nire mailako bertsolaririk oraindik ez dut topatu ni naukazue zeru goietan San Pedroren delegatu.

Mai²




ZER NAHIAGO?

Inazio Muñoz

Saioa gimnasilekukoa

- Kiloak kentzeko metodorik onena? Dieta eta kirol egoki bat jarraitzea.
- Kirolik konpletuena? Igeriketa, gorputzean kalte gutxien uzten duen kirola delako.
- Mendira ala gimnasia joatea? Nik normalean biak konbinatzen ditut.
- Gazte ala helduak etortzen dira gehiago? Beno, ezin daiteke esan, ihardueraren arabera desberdinak dira, adin guztietakoak gehienetan.
- Kulturismoa gustatzen? Bai, gustatzen zait, baina ez dut praktikatzeko.
- Ze iritzi duzu apaizgintzari buruz? Oso iritzi txarra.
- Bizitzako zein urte gogoratzen duzu gehien? 23 urte izan nituen urtea, oso gauza inportanteak pasa ziren nire bizitzan.
- Zer uste duzu Gaztetxeari buruz? Ez dut iritzirik horri buruz, ez dut ezagutzen eta.
- Saunan egon daitekeen tenperatura? Saunan tenperatura ez da inportanteena, hezetasuna baizik.
- Zer da gehien gustatzen zaizuna zure gorputzetik? Nire gaitasun toraxikoa.
- Eta gutxien? Bernak.
- Animalia bat bazina, zein? Tigrea, dudarik gabe.
- Karamelo bat? Marrubizkoa.
- Dirua, osasuna ala maitasuna? Denetatik pixka bat, ez noa gezurrik esatera.
- Kirola egiteko, ze erropaz? Fibra naturalez eginikoak: kotoia, artillea.
- Normalean zenbat diru izaten duzu karteran? Oso gutxi, batzutan bat ere ez.
- Etxean liburu asko duzu? Bai, kirolari buruzko liburuak batez ere.
- Lo hartzeko modurik goxoa? Kirol asko egin eta gero, esnea edan eta ohera sartuta.



PEUGEOT - TALBOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



JOSU

TXOKOLATEGIA
KAFATEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28
ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK



77 05 65

Errukane Aperribai

“%64,9ak ezagutzen du AED”

AED ezagutzen duzu? AEDk antolatutako ekintzen berri baduzu? Zein ekintza da zure ustez txalogarriena? Zein ekintzetan hutsegiten du? Hauek eta beste antzerako galderak erantzun dituzte arrasatearrek Errukanek zuzenduriko inkesta batetan.

— Zeintzuk izan dira ikerketa honen helburuak?

— Hasteko, helburu inportanteena AED Arrasaten zer pintutaraino ezagutzen den eta AEDri buruz zer iritzi dagoen ikertzea izan da, baina helburu nagusi horren barruan badaude beste batzuk: AEDren helburuak ezagutzen diren, ekintzen berri badagoen, beste elkarteekin erlazionatzen den eta AEDren lanari ze kalifikazio ematen zaion.

— Zer kriterio jarraitu dira ikerketa egiteko?

— Beno, gaiza asko izan ditugu kontutan. AEDk ez duela egin halako inkestarik eta hau egitea pentsatu genuen. Egunez egun erantzuna ikusten da baina indize mailan inoiz ez da ikerketarik egin. Hainbat kriterio hartu nituen kontuan; Udaletxean, adina, sexua, distrito eta beste datuak eskatu genituen. Gero,



sinesgarritasun tasa neurtzeko inkesten kopurua zehaztu eta inkestako galderak finkatu genituen. 154 inkesta egin dira guztira, 12 urtetatik gorakoei. Inkestatzailak borondatezkoak izan dira. Inkesta hauek urriaren 27an hasi eta azaroaren 25ean bukatu genituen.

— Zeintzuk izan dira emaitzak?

— Beno, euskaldun eta erdaldunen artean dagoen desberdintasuna hartu behar da kontutan. Esate baterako, AED ezagutzen duten arrasatear guztien %85,3a euskaldunak dira eta erdaldunen %55,7ak, hau da erdiak baino gehiago, ez duela ezagutzen adierazten du. Bestalde, adinaren arabera, 12

urtetik 45 urtetara bitarteko %77,1ak ezagutzen duela adierazi du, eta 46tik gorakoen %56,9entzat ezezaguna da AED. Datu hauek ikusi ondoren, 12 urtetik 45 urtetara bitarteko euskaldunak dira AED gehien ezagutzen dutenak. Beste galdera batzuk ere egin dira. Adibidez, AEDren helbururik garrantzitsuena galdetzerakoan %64,7ak orohar euskararen sustapena dela esaten dute. Bestalde, AED ezagutzen duten %60,6ak AEDren ekintzak ere ezagutzen ditu eta maila honetan, umeekin zein gazteekin zerikusia duten iharduerak txalotzen dira. Eta beste zein erakundeekin elkarlotzen duten galdetzerakoan, ARKO, AEK, Ikastolaren, Udaletxearekin edo Skautekin lotzen dute AED, porzentai handienak ARKOrekin lotuz.

— Emaitzak ikusi ondoren, zein da AEDk egiten duen balantzea?

— Beno, nik datu hauek aurkeztu nituenean, balantze ona, positiboa egin zela uste dut. Oso inportantea da halako datuak ezagutzea eta portzentaia handi batek AED ezagutzen duela jakitea.

LABURRAK

Irakasle Eskolak bi lehiaketa irabazi

1992. urteko “Isaac Lopez-Mendizabal” lehiaketako bi sari irabazi ditu Eskoriatzako Irakasle Eskolak. Irakaskuntzari begira antolatzen den lehiaketa honetan, bi aldiz aurkeztu dituzte euren lanak. Aurten, liburugintzan aurkeztu dituzten lanekin bi sari irabazi dituzte. Euskara irakasteko testu-libururik onenaren saria, Erein argitaletxearen “Esaizu 8” liburuarekin, eta kontsulta-liburuaren eta Material Osagarrien ataleko libururik onena, Ihardun argitaletzeko “Lehen Hiztegia” liburuarekin. Iazko Migel Alzotz lehiaketan Ihardun audio-bisualak etxearen “Euskal Herrian Zehar: Bidasoa Behe-rea” eta Ihardun Audiobisualak etxearen “Maddiren Abenturak III: Denda Kanpainan” lanekin beste sari bat irabazi zuen. Lehiaketa hauetan irakaskuntzari begira jarraitzen duten planteamendua eta metodologia didaktikoa baloratzen dira.




aitzgorri

LARRU eta LARRUKIAK

LARRUZKO PRAKAK 15.000 PTAtik AURRERA!!!

Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

MITOLOGIA

MAMURRAK

Mamurrak edo Gal-tzagarriak, neurri oso txikiko iratxoak dira. San Juan bezpera gauetz, sasi-en gainean orraztoki edo beste kutxatilarren bat irekita utziz gero beregana daitezke. Lekua eta ordua desberdina da eskualde baten zein bestean; adibidez, Mungian, orraztokia Solluben jarri behar dela uste dute; beste batzuk Artxanda... Beste zenbaitetik dio, aintzina, Baionako denda batetan ontzurre erdiaren truke eros zitezkeela Mamurrak.

Leku askotako ustea da, iratxo hauek intsektu itxurakoak direla; beste batzuk diotenez, berriz, praka gorritz jantzitako gizaki txiki-txikiak dira. Lau sartzen dira orraztoki bakoitzean. Kutxatilako tapa zabaltzeaz bat, jabearen buru inguruan bueltaka hasten dira, etengabe galdetuz: "Zer nahi duzu guk egitea?". Eta berehala betetzen dute agindutakoa, nahiz erreza nahiz ikaragarri zaila izan.

Mamurrak, gauza sinestezinak burutzeko gai dira, horregatik, ekintza eta lan harrigarriak egiten dituzten pertsonetaz, halanola azti, sorgin eta zenbait petrikilotaz, mamurrak dituztela esaten da.


LIHER LARREA

Apotzaga, larunbatean bertsozale eta bertsolarien topagune

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Leintz Bailarako bertsozale eta bertsolari gazte eta helduen topagune bihurtuko da Apotzagako Auzo-Etxe elkarte. Afaria arratsaldeko 8.30etan hasiko da; bertsoak, berriz, afalostean, baina tartean ohizko menua: bildotsa.

Hasiera batean, Apotzagako bertso-afaria bailadako txapelketa gisa antolatu zen; azken urteotan, aldiz, lehia kutsua kendu egin nahi izan zaio eta omenaldi-gisa ere, antolatu da. Iaz, esate batera, Andres Gabilondo bertsozaleari eskaini zitzaion omenaldia, eta baliteke datorren urteko bertso-festa beste omenduren bati eskaintzea.

Iragana eta etorkizuna alde batera, aurtengo bertso-afariak hitz egin behar. Protagonismoa bertsolari gazteek hartuko dute, saio nagusia euren kontura joango baita; besteak beste, Agurtzane Iñurrategi, Saioa Arando, Amaia Agiriano, Ainhoa Agirreazaldegia, Iker Agirre, Jon Iñaki Izarzelai, Arantzazu Loidi eta Aitor Sarasua Apotzagan izango dira. Saio nagusiaren inguruan kantatzeko, berriz, beteranoen lana: Kepa Urain, Maximo Letona, San Miguel anaiak, Iñaki



Plazaola, Jon Sarasua eta Txarrualde. Gaiak jartzen, Apotzagako beste ohitura bat, Nikolas Segurola, eta agurra kantatzeko aukera, nahi eta gai den edonori. Apotzagako bertso-saioa antolatzeko hila bete batzuk lehenago egin diren bileretan, bertsolari helduak izan dira, aurtengo protagonismoa gazteei dagokielako erabaki dutenak. Eutsi egin nahi diote urteroko ahitura

honi, eta horretarako gazteen eta etorkizunaren alde egin dute apustu.

Apotzagan bilduko diren 200 lagunek, bertso-giroko 4-5 ordu inguru pasatzeko aukera ederra izango dute, jarri, afaldu eta bertsoak entzun edo kantatzea beste egitekorik ez baitute izango. Eskeririk ez baitute izango. Eskeririk auzetxekoei, urtero afaria prestatu eta zerbitzatzeko arduratzen dira eta.

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

TXOKO TABERNA

*Cure berezitasunak pintxo
eta mokau gozoak*

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE

· AIPUA ·

“Zorionekoak ezer esatekorik izan ez eta esan gabe eusten diotenak”

James R. lowell

· JEROGLIFIKOA ·



Zeinek kendu dio erregina?

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3		4	5	6	7
8				9			
10			11				
12							13
14					15	16	
17		18					
19					20		

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Aparteko. 8. Sasoi. 9. Haran. 10. Zaldibarreko futbito txapelketako ekipoa. 12. Amuarrainaren antzeko arraina. 14. Sodioa. 15. Gipuzkoako Udala. 17. ESAUKen plater famatuan. 19. Unain hitz elkartuan. 20. Maiz.

Bertikalak 1. Garraztu. 2. Gaixoak zaintzeko lanbide. 3. Fruitu tropikala. 4. Lore mota bat. 5. Harpidedun. 6. Koordinadora Abertzale Sozialista. 7. Txakur. 11. Seigarren hilabete. 13. Aintzira. 16. (Ald.) Putre. 18. Musika nota.

· HOROSKOPOA ·

Aries Laster, ezezagun baten bisita “emozionantea” jasoko duzu.

Taurus Pailazo jantzi zarela Haratuzteetan? Ez zeneukan moztarrotu beharrik.

Gemini Zu gabe, egunak tristeagoak dira niretzat.

Cancer Azterketa bat gainditu ez duzulako horrenbeste buruhauste? Lasai, lagun!

Leo Datozen hiru egunak ez dira aurrenekoak izango zuretzat.

Virgo Utz ezazu “Bonolotoa” alde batera. Hori ez da zuretzat aproposa.

Libra Samin haundiak, maitasunaren indarrez estaltzen dira.

Scorpio Kotxea gidatzerakoan, kontuz, istripu arrikuan zaude!

Sagittarius Lapur asko ibiliko zaizkizu zure diruaren atzetik.

Capricorn Mutilak utzi egingo zaitu, baina jatorrago bat izango duzu laster.

Aquarius Lan eskeintza bikaina izango duzu hiru egun barru.

Piscis Txoriak ihes egin dizu eskuetatik, baina noizbaiten harrapatuko duzu.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• JOSE RAMON AGIRREURRETAREN GOMENDIOA •



Langabezia, krisia eta herrian bizi diren bestelako neuretatik irteteko, asteburuetan herritik kanpora joatea gomendatzen digu Joserrak, eta sagardotegia proposatzen du. "Tolosako Aldabatxiki auzoko Isasti gomendatuko nuke". Irteera gauzez bada, autobus txikiren bat alokatzea komeni dela uste du, eta egunez bada, Azpeiti, Errezil eta Bidani aldetik buelta polita egin daiteke. Gomendatu bakarrik ez, Joserrak sagardotegiarena praktikara eramane behar du aste honetan bertan, Euskaltegiko ikasleekin "beti sufritzen ez edukitzearren, sagardoarekin batera euskara ere edan dezaten".

• PROGRAMAZIOA •



28 Igandea

8.15 Monterroek
8.45 Mondragol

1 Astelehena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondragol
2.00 Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak.
9.30 Mondra Sport.
10 Asteko zinea: Robocop

2 Asteartea

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondra Sport
2.00 Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak.
9.30 ATB Pub
10 Asteko zinea: Robocop.

3 Asteazkena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 ATB Pub
2.00 Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak.
9.30 Tertulixan.
10 Asteko zinea: Robocop.


4 Osteguna

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Tertulixan
2.00 Follow me
7.30 Dokumentala.
8.8.30.9 Berriak.
9.30 ATBketan.
10 Asteko zinea: Robocop.

5 Ostirala

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 ATBketan
2.00 Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak.
9.30 Monterroek.
10 Asteko zinea: Robocop.

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •

JEROGILIFIKOA
Dorreak.
La.
7.Or. 11. Ekain. 13. Laku. 16. Ias. 18.
Koko. 4. Lili. 5. Abonatu. 6. Kas.
Bertakal 1. Samindu. 2. Ertzain. 3. 20. Ussu.
Na. 15. Aia. 17. Dilistak. 19. Uman.
9. Ibar. 10. Mikelos. 12. Izokin. 14.
Horizontalk 1. Sekulako. 8. Aro.
GURUTZEGRAMA

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

LODITASUNA, LIPOESKULTURA, ZELULOLIPOLISIA.

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA
Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

ITSASKI


ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 



SUKALDE LILURAGARRIAK!

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g

ARRASATE

Tfnoa: 79 00 43

Ipeñarrieta, 5

URRETXU

Tfnoa: 72 50 75

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

ARRASATE

Tfnoa: 79 99 42